

# **B. Atxaga eta J. Sarrionaindiaren metaforetan barrena bidaiatuz**

**Aitzpea Azkorbebeitia Aldaiturriaga  
EHUko Euskal Filologia Saileko bekaduna**

Artikulu honek B. Atxaga eta J. Sarrionandiarengana hurbilduko gaitu euren metaforen azterketaren bidez. Hurbilpenak metaforaren teoria tradizionalen berrikusketa kritikoa eta bestelako ulerkuntza baten proposamena du abiapuntu, pragmatikaren eta Harrera Teoriaren ikuspegiak erabiliz. Ulerkuntza horren laguntzaz, aipatu idazleen testuetan metaforak jokatutako papera aztertzen da jarraian, paper hori erretorikaren kontzeptu tradizionalarekin baino gehiago egileek literatur sorkuntzaz dituzten planteiamenduekin lotzen dela erakutsiz. Metaforak idazleen poetikaren isla da ez ezik, euren ikuskera ezberdinen islada ere badira, bereziki lan honen azken atalean aztertzen direnak: kristala, elurra, errautsa, harea, basamortua, itsasoa, hiri eta irla urrunak, bidaia, basoa eta parke eta lorategia.

The article approaches us to B. Atxaga and to J. Sarrionaindia, through the analysis of their metaphors. The approach starts with a critical review of the traditional metaphor's theory and a proposal for another understanding, using both the pragmatical and Reception Theory's points of view. Following, aided with that understanding, the article analyses the role played by the metaphor within the texts of the mentioned writers, showing that this paper is more closely linked with the idea the authors have about literary creation than with the traditional concept of rhetoric. These metaphors reflect, not only the poetics of the writers, but also the writer's different views, specially those which are analyzed in the last part of this work: glass, snow, ash, sand, desert, sea, remote cities and islands, journey, forest and parks and gardens.

## 0. Atarikoa\*

B. Atxagaren eta J. Sarrionandiaren metaforek apaingarritasunaz harago erabilpen esanguratsua jasotzen dutelako intuizioan oinarrituz batetik, eta euren azterketak testuaren irakurketa zein autoreen gaineko gure ezagutza aberats dezakeelako aierua abiapuntutzat hartuz bestetik, bai Pott Bandaren altzoan jaiotako lanetan, bai geroztik kaleratutakoetan behin eta berriro agertutako zenbait metafora aztertzea dut asmo honako lan honetan. Alabaina, metaforaren teoria tradizionalak asmo horretan ezer gutxi lagun nazakeenez, bestelako kontzeptualizazio bat proposatuko dut hemen. Hortara dator lehen atala. Bertan, eta metafora komunikazio-fenomenoa den aldetik, pragmatikaren ikuspegiaren barruan ulertuko dut; bestalde, eta literatur testuan jokatzeko duen paperari begira, Harrera Teoriaren markoan kokatuko. Kontzeptualizazio honek gidaturik, metaforak idazle hauen testuetan jokatzeko duen paperaren azterketari lotuko natzaio ondoren. Bigarren atal honetan zehar agerian geratuko da paper horren eta autoreek literatur sorkuntzaz dituzten planteiamenduen arteko harreman estua, bai eta planteiamendu horren bilakaera

ere (bereziki B. Atxagaren kasuan). Agerian geratuko da, honela, ez gaudela apainduraren xedea daukan erabilpen tradizionalaren aurrean. Azkenik, hirugarren atalean, garrantzitsu deritzodan zenbait metaforaren irakurketa eskainiko da (garrantzitsu euren agerpen errepikatuagatik eta idazleen ikuskera ezberdinez ematen duten argiagatik): hauskortasunaren eta hondamendiaren inguruko metaforak, 'beste lurraldea'ren metafora, bidaiaren metafora (*Hnuy illa nyha majah yahoo*-ren metafora nagusienerarik bat) eta, bukatzeko, basoaren metafora zein parke edo lorategiarena (azken hau zinez nabarmena Atxagaren testu berrienetan).

### 1. Metaforaren teoria tradizionalaren berrikusketa kritikoa: bestelako kontzeptualizazio baten proposamena

1.1. Gorago esan bezala, lan honetan ez da metaforaren ulerkuntza tradizionala erabiliko. Alegia, ez dut metafora «termino metaforikoa eta errearen arteko antzekotasunari esker gertatzen den lekualdaketa, ordezkapen zein gonbarazio eliptiko» legez ulertuko<sup>1</sup>, ez eta termino horien

---

\*. Artikulu hau Andolin Eguzkitza eta Jon Kortazarren zuzendaritzapean eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko "Ikertzaileak prestatzeko beka" baten laguntzaz 1992an hasitako ikerketa zabalago baten (doktorego-tesia izango denaren) barruan kokatzen dela azpimarratu nahi dut, lan honen partzialtasuna eta behin-behinekotasuna (1996ko urtarrilean idatzia da artikulu hau) ulertua izan dadin. Laguntza horiekin batera, ondokoek eskaini didatena ere agertu gura dut eta guztiei hemendik nire esker-ona helarazi: Bernardo Atxaga, Iñaki Camino, Ricardo Gómez, Maria Kortaire, Joseba Andoni Lakarra, Maribi Legarra, Gerardo Markuleta, Amaia Olañeta, Mari Jose Olaziregi, Mario Saalbach, Martin Uriarte, Andoni Uribe Larrea eta Begoña Vicente.

1. Hauxe dugu, hain zuzen ere, garai klasikoetan jaino (Aristoteles, *Poetika*, XXI kap., Ciceron, *Orator* § 80-82, 92-93 eta Quintiliano *Institutio Oratoria* VIII lib., 6. kap.) eta, mendeak zeharkatuz (Du Marsais 1800, II: 10; Fontanier 1977: 99-104), standarda izatera iritsi den definizioa bai hiztegi zein irakaskuntzari begirako eskuliburuetan (*LUR* hiztegi entziklopedikoaren 7. lib.: 413; Lázaro Carreter 1990<sup>3</sup>: 275-276; Elgoibarko Euskara Mintegia 1986: 300 eta Artola et al. 1980: 29-30), bai erretorika eta bestelako literatur kritika eta azterketen esparruan (Lausberg 1976, 2. lib.: 57-70; Spang 1984: 221-224; Martin 1973: 275-276; Dañoibeitia 1988: 193; Otegi 1993: 249; Rodriguez 1977: 9-19; Navarro 1995: 47, besteak beste), bai metaforari buruzko lan espezializatuetan ere (Adank 1939; Brooke-Rose 1970<sup>2</sup>; Pelc 1961; Beardsley 1981; Wheelright 1960; Barfield 1962, etab.).

arteko «inkompatibilitate semantikoaren ondorioz gertatuko litzatekeen sema zenbaiten hautapen, ezabaketa eta gehikuntza» legez<sup>2</sup> ere. Literatur kritikaren tradizioan ere nagusi izan diren ulerkera hauetatik urrundu beharra dago nire ustez, alde batetik zutabetzat dauzkaten irizpideak kolokan daudelako eta, hasieratik postulatutako metaforaren aberasteko ahalmena jasotzen ez dutenez, literatur kritikarako lanabes aproposa agitzen ez direlako bestetik.

Irizpideon ezegonkortasun honek euron testuinguraketa gabezia dauka iturburu azken finean. Metaforaren definizio-ezaugarritzat defendatu ohi den terminoen esanahien arteko antzekotasunaren irizpidea, kasu, bete-betean onartzea zaila da. Adibidez, ondoko komunikazio-testuinguruan, A hiztunak oporrei buruz galdetzen dio B hiztunari eta honek, oporretarako zeukan diru guztia autoarentzako gurpil berrien erosketan gastatu duelarik, honako hau erantzuten dio: “nire oporrrak gurpil horiek dira”<sup>3</sup>. Non dago antzekotasun literala bi terminoen artean? Nire aburuz, ezbaian jar ezina da ‘antzekotasun’ hori maiz hiztunok ezartzen dugula komunikazio-testuinguruan bertan<sup>4</sup>, hots, ez dagoela aurretiaz hizkuntza-sisteman. Azken buruan hori esan nahi zigun M. Black-

ek antzekotasuna metaforak berak sortua dela zioskunean (1966: 47). Gainera, askotan esanahi linguistikoan baino gehiago honek propioki jasoko ez lituzkeen bestelako aspektuetan datza (aspektu afektiboetan, sentsazioekin erlazioatutakoetan: “izotzezko begirada”z hitzegitean, adibidez). Beraz, hobe genuke ‘antzekotasun hipotetikoa’z hitz egin, areago kontutan izanda antzekotasunik gertatzen eiz denean nekez jakingo dugula ziurtasun osoz «which similarities are metaphorically intended by the speaker» (Searle 1991: 532). Gogora bedi, adibidez, Atxagaren «Urrezko erloju paralitikoa larunbat honetan ekia / ezkilaz eta karameluz beteriko argi boltsa bat» (*Etiopia*, 43. or.). Dena den, terminoak sinonimo huts bihurtuko lituzkeen antzekotasun hori definizio-irizpide legez baztertzek ez du esan nahi analogiaren papera ukatzen dudarik; izan ere, gure pentsamenduaren funtzionamenduekin lotzen den analogia-mekanismoak metaforaren eraikitze eta interpretatze estrategia bezala jokutzen duen paperrari funtsezkoa deritzot.

Honetaz gain, definizio tradizional hauetan metafora berezko esanahian gertatzen den desbideraketa-fenomenoa (tasun semantikoaren inkompatibilitateak sortua) besterik ez da<sup>5</sup>. Baina

---

2. Hizkuntzalaritza eta bereziki semantikaren ikuspuntutik egindako azterketetan ez ezik (Levin 1977; Van Dijk 1975; Bergmann 1979; Cohen 1986<sup>5</sup> kasu), literatur azterketetan ere arrakastatsu suertatu ohi da azalpen hori. Erretorikari bultzada berri bat ekarri zion *Rhétorique générale*-n, adibidez, metafora ‘metasemema’ bezala aurkezten da (alegia «une figure qui remplace un sémème par un autre», Groupe U 1970: 34). Ezabaketa eta gehikuntza semikoa dituelarik zutabe (Groupe U 1970: 49 eta 106), bi eragiketen elkarketaren emaitzez «la métaphore se présente comme le produit de deux synecdoques» (Groupe U 1970: 180; ik. oro har 106-112). Planteiamendu berberari lotzen zaizkio, besteak beste, L. Schwartz (1986) eta Le Guern (1990<sup>5</sup>). Bestalde, eta literatur semiotikaren ikuspuntutik, U. Eco-k ere bide paraleloa aukeratzen du metafora ‘identitate semikoa’n datzan sememen ordezkapen fenomeno bezala aurkeztean (1977<sup>2</sup>: 447).

3. Gibbs-en (1987) adibidea.

4. Antzekotasunaren testuinguruekiko menpekotasunaz ikus Bosch (1985: 144-154).

5. Metaforak hautapen-ezaugarrien bortxaketarekin erlazioatzen direlako Chomsky-ren iradokizuna jasoz (1971: 141), zabala da metafora desbideraketa honek definitzen duela defendatu duen tradizioa

ideia honek ere pareko arazoak planteiatzen ditu, bai azalpena antzua izateagatik *berezko esanahia* kontzeptua finkatzen ez den artean (ik. Ortony 1980: 69) eta orobat era ez kontestual baten ulertzen den artean<sup>6</sup>, bai desbideraketaren fenomeno hori metafora orotan gertatu ez (adib. «no man is an island»<sup>7</sup>) eta, ondorioz, 'metaforaren teoria'ren estatusa kolokan geratzea-gatik. Bestela esanda, 'desbideraketa' edota 'anomalía semantikoa' zein berau gainditzeko proposatu izan diren tasun semantikoen kantzelazioa eta gehiketa bezalako eragiketak metaforaren definizio-irizpidetzat onartzekotan (gogoan izan desbideraketa, adibidez, ez dela beti gertatzen), testuinguruarekiko eta hiztunaren asmoarekiko euren menpekotasunean onartu beharko lirarteke. Baina gehienetan irizpide hauek menpekotasun horri arretea eskaintzeke planteiatu izan dira eta menpekotasun horri nolabaiteko arretea eskaini zaionetan, semantikoa

izan nahi duen ereduan txertatzeke. Ondorioz, zalantza ugari sortzen da beraien gainean (ik. Hawkes 1984: 79-80; Vicente 1995: 123 eta 145-152; Gumpel 1984: 242-247).

Hori guztia aintzat hartuta, gatozen lan honetan proposatu ulerkeraren arlora. Labur esanez, metafora hizkuntza-komunikazio fenomenotzat jotzen dut eta ez, metaforaren teoria kognitibo-antropologikoetan sinesten denez (ik. bereziki Lakoff & Johnson 1981 eta 1991; Kittay 1991), gaitasun kognitibo espezifikotzat. Zehazkiago esateko, pragmatikaren eremuan barrereneratzen den fenomeno daukagu, komunikazioaren printzipio orokorrei erantzuten baitie —ez naiz Grice-ren Kooperazio Printzipioaz ari (1975: 45-47), D. Sperber eta D. Wilson (1986: 158) formulatutako Pertinentzia Printzipioaz baizik<sup>8</sup>— eta hiztunaren asmoa, elkarrekiko kognizio-ingurunea<sup>9</sup> eta jokoan jarritako presuposizio eta

---

(Matthews 1971 eta Bickerton 1969 gorago aipatutako lanen zerrenda osatzera datoz), baita literatur kritikaren eremuan ere non, desbideraketa hizkuntza-arauekiko ez ezik arau literarioekiko ere onartzen denez, 'desbideraketa estilistikoa'z hitz egingo den sarritan (ik. geroago 1.2. azpiatala).

6. Ohart gaitezen, Gibbs-en adibidearekin jarraituz, testuinguruak soilik esan diezagukeela «*gurpilak* = 'garestiak diren auto baten piezak'» 'berezko esanahia' dagoela jokoan eta ez, esate baterako, «*gurpilak* = 'pieza borobil eta lauk, ardatz baten inguruan biraka dabilztanak'», ezta «*gurpilak* = 'itzelezko garapen teknologikoaren abiapuntu den gizakion asmaketarik garrantzitsuenetarikoa'» ere.

7. Glucksberg, Gildea & Bookin-en lanetik (1982: 87) hartutako adibidea.

8. Printzipio honek ahalik eta prozesamendu esfortzu txikienarekin ahalik eta efektu kognitibo handienak lortzera gidatzen gaitu, honela esfortzua eta irabazi kognitiboa parekoak suertatuz: komunikazio metaforikoak ahalegin handiagooa eskatzen badigu ere, efektu kognitiboak ere aberatsagoak dira. Efektu hauek, nik uste, afektibitatearen mailakoak izan daitezke sarri askotan (hipotesi honen alde letorke Sperber & Wilson 1986: 224 eta 1991).

9. Hiztunek ezagutza-ingurune bat amankomunean eduki beharra baino harago amankomunean dutena eurentzat agerian (*manifest*) egon beharra jasotzen da *mutual cognitive environment* delako kontzeptu honetan (Sperber & Wilson 1986: 38-46). Hona hemen adibide bat: B hiztuna A hiztuna baino beranduago jeiki da eta, kafeontzia hutsik dagoela ikustean, amorruzko aurpegia jarri du. Ak orduan «nik ez dut oraindik gosaldu» diotso. Bada Ak hori badiotso ez da soilik badakielako 'Bri kafea gosaltzea gustatzen zaio'la, baizik eta Bk ere badakielako Ak hori badakiela eta horrela *ad infinitum*. Hau da, Ak hori badiotso honelako ezagutza-katea infinito bat gertatzen delako da (X deituko diogu 'Bri kafea gosaltzea gustatzen zaio' ezagutzari): Ak badaki Bk badakiela Ak badakiela... X. Xen ezagutza bientzat agerian dagoenez gero, Bk "Ak ez nau kaferik gabe utzi" inplikatura eratorri ahal izango du (eta jakin, hau ere badaki Ak esaldi hori erabiltzean). Elkarrekiko kognizio-ingurunearen garrantzia areagotu egiten da metaforaren kasuan, komunikazio literalak baino askoz inplikatura gehiago komunikatzen baitu. Hain zuzen, maiz komunikazio metaforikoaren huts egitea (metafora hermetikoak deitu direnen kasuan, adibidez) elkarrekiko kognizio-ingurune horren faltagatik gertatzen da.

inplikazioak bezalako faktore kontestualei guztiz lotzen baitzaie. Bat egiten dut honela metaforaren giltzarria perpausaren esanahian barik hiztunaren asmoan eta honen islada den esaldia-  
ren esanahian dakusan korrontearekin (Levinson 1983; Inhoff, Lima & Carrol 1984; Stroik 1988; Vicente 1993 eta 1995; Alba 1993, etab.). Ulertzen dut, beraz, esaldi metaforikoen ezaugarri dela beren forma proposizionala hiztunak komunikaturik ez egotea (hau da, soilik transmititurik egotea). Demadan exenplu bat: guk ere ezagutzen dugun Mikel bere etxean bisitatu du Aitorrek. Honek, Mikelen bizimoduaz gure itaunari erantzunez, «korta baten bizi da» diosku. Bada esaldi metaforiko horren aitzinean 'kortak abereak gordetzen diren tokiak dira' edota 'Mikel ez da abere bat' asuntzioak jokoan jartzen ditugu eta, honela, badakigu Aitorren asmoa ez zela esaldi horren forma proposizionala (hots, Mikel abereak gordetzeko erabilitako toki baten bizi delako baieztapena) komunikatzea. Ulertu gehiago ere ulertzen dugu, 'korta baten egon ohi den kirats eta zikinkeria dago Mikelen etxean ere' nahiz 'Mikeli ez zaio axola zikinkeria artean bizitzea' nahiz, harago joanda, 'Mikel ganorabako hutsa da' inplikazioen eratorpenaren bidez. Planteiamendu honek *esanahi literala / metaforikoa* dikotomia ezagun bezain arriskutsua (ik. Searle 1991: 520) saihesteaz gain, metaforaren funtsa esaldiaren eta pentsamenduaren arteko erlazioan ezartzen du, eta ez perpausaren eta errealitatearen artekoan (hau da, metaforak ezarritako egi-balioen eta bere interpretazio literalaren egi-balioen arteko erlazio kontra-esankorrean), zeren non dago faltsu-

tasunik goiko «no man is an island» edota «ez duzu aldegiten utzi behar / azkenengo tren» (*Izuen gordelekuetan barrena*, 22) metaforetan?.

Ikusten denez, mekanismo metaforikoa esaldien anitz inplikatura ahul komunikatzeko gaitasuna –alegia, esaldien indeterminatuak izateko aukeratu muturreraino daraman mekanismoa da. Honela, entzulea testuingurua zabaltzera (hau da, asuntzio gehiago jokoan jartzera<sup>10</sup>) behartzen du, esaldia kontestualki osotu eta inplikazioak inferentzialki eratorri orduan. Horrengatik metaforak hizkuntzaren –bat eta bakarraren– komunikazio-aukerak osatutako *continuum* baten muturreko kasuak (inplikatura ahulen komunikatze aberatsagoa eta forma proposizionalaren eta hiztunaren pentsamenduaren arteko alde handiagoa gertatzen den muturrekoak) baino ez direla proposatzearen aldekoa naiz, B. Vicenterekin (1993 eta 1995) bat eginez. Planteiamendu tradizionalak, *hizkuntza arrunta* eta *hizkuntza metaforikoa*-ren arteko banaketa irmea ezartzearekin batera, metaforaren lehenengoarekiko inkompatibilitatea eta apartekotasuna defendatzen du; hemen aurkeztutako ulerkerak, artean, irauli egiten du planteiamendu hori.

Zentzu honetan, sinboloa eta gonbarazio arruntetik ezberdintzeko *gonbarazio metaforikoa* deitu izan dena ere *continuum* horren hurreko aukerak bezala ulertzeari hobe deritzot: hasteko euren azpian ere metaforaren mekanismoa geneukakeela uste dudalako (inplikaturen determinazio-graduan legoke, egotekotan, ezberdintasuna) eta, jarraitzeko, bi fenomeno

10. Testuingurua, Errelebantzia-Teoriari lotzen natzaialarik, konstrukto psikologiko legez ulertzen dut, esaldi baten eraikuntzan eta interpretazioan jokoan jarritako asuntzioen azpimultzoa legez, zeintzuk hizkuntza-testuinguru nahiz egoera-testuinguru hurbilari buruzkoak ez ezik, munduaz daukagun ezagutzari buruzkoak ere diren (ik. Sperber & Wilson 1986: 15-16).

horien metaforarekiko muga maiz definigaitza izanik, fenomeno ezberdinez hitz egiteak azalpena lardaskatu baino egiten ez duelako. Hau da, eta sinboloaz den bezainbatean, lehen begiradan pentsa genezake metaforak informazioa era indeterminatuan (hots, inplikazio ahul anitzen bidez) transmititzen duela eta sinboloak, ostera, era determinatuan (inplikazio bortitzen, ezagunen bidez: adibidez, «uso zuria»). Pentsa genezake, beraz, ezberdintasun honek bereizten dituela bi fenomenoak. Baina ezin ahantz dezakegu batetik metaforak berak indeterminazio-gradu ezberdinak erakuts ditza keela (alegia, inplikatura ahula jokoan jartzen duten metaforak ez ezik, inplikatura ez hain ahula jokoan jartzen duten «moralá altxatu zaió» bezalako metafora determinatuagoak ere bada rabiltzagula) eta, bestetik, inplikazioak era bortitz eta determinatuan komunikatzen dituzten sinbolo haien ondoan egon badaudela inplikazio ahul eta indeterminatuak komunikatzen dituztenak ere: *Gartzelako poemak*-en, *Intxaur azal baten barruan*-en zein «Gaueko enkontrua» narrazioan behin eta berriro agertzen den «oilár» gehienetan «gorri» hura gogoratzea besterik ez dago. Izan ere, honelakoetan metaforekiko muga lausoa da. Gauza bera esan liteke gonbarazio metaforikoaz ere, zeinaren partikulak ez baitio mekanismoari inolako ezberdintasunik ekartzen: zertan dira ezberdin «mutu al diraute telefonoak (sic), bihotz mortuak *bailiren* gauz gau» esaldiak transmititutako inplikazioak eta «son mudos los teléfonos, corazones desiertos noche tras noche» esaldiak transmititutakoak (*Poemas & híbridos*, 36-37. or.)? Azpimarra dezadan, bidenabar, gonbarazio metaforikoaren azpian mekanismo metaforikoa bera dagoelako iradokizun honek ez

dakarrela berarekin metaforaren gonbarazio-teoriaren onarpena, justu kontrakoa esaten ari naiz eta.

1.2. Urrats bat harago eman eta lan honen xedera gerturatuz, diodan mekanismo metaforikoaren ulerkera honek, gainera, literatur kritikarako lagungarri suerta dakigukeen bestelako kontzeptualizazio baterako bidea irekitzen duela. Hasieratik esan dudanez, gorago kolokan jarritako azalpen horien bidea izan da nagusi literatur teoria eta azterketen esparruan ere, definizio zalantzakor haiekin batera desbideraketaren ideia galbidetsuak gidatu dituelarik korronte eta lan ezberdinak: metafora *ornatus*-aren zerbitzuan zilegi den *impropietas* bat da erretorikaren joera klasikoan (Lausberg 1976: 57-58; Spang 1984<sup>2</sup>: 124 eta 209), efektu poetikoen lorpenera zuzendutako *écart* bat Liègeko Taldearen eskutik datorren haren bilakae-ran (Groupe U 1970: 38-42), ohikoa estrainio bihurtzen duen<sup>11</sup> arauarekiko desbideraketa *Opojaz*-eko teorilari-entzat (Erlich 1974<sup>2</sup>: 255), irakurlearen-gan artista bihurtuko duen «inpresioa» (Alonso 1971<sup>5</sup>: 201-202) sortarazten duen desbideraketa linguistiko (Spitzer 1968<sup>2</sup> eta 1980; Bruneau 1951-1952: 6; Guiraud 1954: 7-8) zein kontestuala (Riffaterre 1976: 68, 79 eta 95) estilistikaren korrontean, ohiko erabileraren arauarekiko zein arau literarioekiko desbideraketa literatur semiotikaren esparruan (Eco 1977<sup>2</sup>: 419). Baina zertan argitzen du testuaren irakurketa «etxera itzuli ninduzunean / *berria zizun ateko zura / eta sarraila ere*» (*Izuen gordeleketan barrena*, 68. or.; letra etzana nik jarria da) metaforan desbideraketa bat (?) agitzen dela esateak? Zertan aberasten du autoreen poetikaz gure ezagutza «Harea lurrik anonimoena» (*Etiopia*, 77. or.)

11. Shklovski-ren *ostranenie* edo 'desohituratzea' ren teoria txertatzen da hemen.

metaforan antzekoak ei diren bi terminoren (zeintzuen?) arteko ordezkape-na, gonbarazio eliptikoa, ezabaketa eta gehikuntza semikoa edota sememen ordezkape-na gertatzen dela esateak?

Ene iritziz, bada garaia metafora egilearen barne zein kanpo-mundua-rekin, mundu-ikuskerarekin, poetika-rekin eta, areago, harrera-fenomenoa-rekin (irakurlearen beraren aipatu eremuekin eta egileari dagozkion eremu horien ezagutzarekin finean) estuki lotzen dela onartzen hasteko eta onartzeko, ondorioz, aipaturiko eremuez argia eman diezagukeela. Baina behingoz hori onartuko badugu, onartu beharko orduan metaforaren kontzeptualizazio batek lotura horren zantzua koherenteki jaso behar duela eta testuaren irakurketa aberats dezakeelako ideari euskarri teorikoa eman behar diola. Aipatu ditudan kontzeptualizazio horietan halakorik ez daukagun une beretik, desegokiak begitantzen zaizkit literatur kritikari begira (eta, gorago esandakoa gogoratuz, irizpide kolokatietan dautzan aldetik baita antzuak ere mekanismoaren azalpenari begira). Garrantzitsua da hemen *koherenteki* hori, ezen zenbait lanetan autorearen mundu-ikuskerara eta ingurune sozio-kulturala bezalako eremuekiko metaforaren lotura onartua izan bada ere, onarpen hori dohako gehigarri bat baino ez baita suertatu, lotura hori ez dagoelako

lanek defendatzen duten metaforaren teoriarantz txertaturik. Alegia, eta adibide baten bidez iritzi hau hobeki agertuko dudalakoan, teorikoki ahula eta inkoherentea da alde batetik metafora 'hizkuntza-transgresio'ekin parekatzea eta sema zenbaiten ezabaketa eta gehikuntza fenomeno soil legez aurkeztea (Quevedoren metaforak aztergai dituen L. Schwartz-ek egin legez, 1986) eta, beste aldetik, «la metáfora (...) funciona (...) como figura que permite el acceso al emisor del mensaje, a su peculiar visión de la realidad y de su contexto socio-cultural» (1986: 23) bezalako kontzesioak harrigarriro egitea, metaforak gaitasun hori (ukatzen ez dudana) zergatik daukan azaldu egin behar baita, defendatutako metaforaren kontzeptuan bertan koherenteki jaso.

Nahiago dut, honengatik guztiaren-gatik, indeterminazio mekanismo legez ulertzen dudan metaforak testuan jokatzen duen paperaz bestelako azalpen bat proposatu eta proposatu ere harrera-fenomenoaz arduratzen den *Rezeptionstheorie* delakoaren abaroan.

Irakurlea prozesu literarioaren mui-nean kokatuz, beraren paper aktiboa<sup>12</sup> aldarrikatzen du Konstantzako Eskola izenez ezagutzen den honek eta paper hori aztertzen bere ildo fenomenologikoan<sup>13</sup>. Hots, testuak bere zentzua irakurleak gauzatu, bersortu denean

12. Irakurketa ekintza bat da lser-en 1987a lanaren izenburuak berak aditzera eman legez: irakurleak irakurtzean sortu egiten du eta honela testua obra bihurtzen. Hauxe da, hain zuzen, J. Sarrionandiak bere lanaz gaztigatzen diguna: «Ez uste izan ene izkribuetan, zeuk zerbait utzi gabe, ezer aurkituko duzunik. Nik buztinezko unti bat ematen dizut, zeu zara bete behar duzuna» (*Ni ez naiz hemengoa* 19. or.).

13. Ildo honen ondoan *Rezeptionsästhetik* deitutakoa ere –historiografikoa bigarren hau– jorratu izan da, batik bat H.R. Jauss-en gidaritzapean. Bertan harreraren azterketan oinarritutako Literaturaren Historia baten beharra aldarrikatzen da (haren 1976 eta 1987 lanak liriteke aipagarrienak; ezin ahantz, haatik, Weinrich-en lana (1971) eta Vodicka-renean (1989) dauden zentzu bereko iradokizunak). Bai ildo hau, bai beste harekiko paraleloa den *Reader Response Theory*-arena zein bereziki Eco-ren 1987, 1987<sup>2</sup>, 1992a eta 1992b lanek osatutakoa interesgarriak diren arren, lan honetan goian aipatu ildoan barrera abiatuko gara.

jasotzen duela ulertuz eta gauzatze hori testuan apailatutako egituren zolan (eta ez arbitrarioki) burutzen delako uste sendoan (hemen dago Iser-en 'irakurle implizitua' kontzeptuaren funtsa<sup>14</sup>), testuaren eta irakurlearen arteko interakzio-erlazio horretara zuzentzen da aztertzailearen soa. Baina baita harago ere: soilik testuan zentratzen ziren joera inmanentistak zein egilearengan zentratzen ziren psikologistak zein testuinguruan zentratzen ziren soziologikoak gainditu egiten dira, ardatz ezberdinak besarkatuko dituen ikuspegi baten alde. Ez da eiki idazlearen ardatza eta idazketa-prozesua alboratzen direla gaizki ulertu behar: polo artistikoa (hots, egileak landutako dimentsioa: testua) eta polo estetikoa (irakurleak landutakoa: obra, hau da, testuaren gauzatzearen emaitza) ezin dira elkarrengandik isolatu, ezin da bata bestearen kaltetan pribilegiatu (ik. Iser 1987a: 44-46; Antezana 1983: 123-124). Irakurle implizituaren analisi bat, esate baterako, egilearen sorkuntza-lanaren islada

den testu-egitura ere aztertzen duen aldetik eta neurrian, egilearenganako hurbilpen bat ere bada. Bestalde, literatur teoria korrante honen barruan indartuz joan den iritziaren arabera (ik. Saalbach 1995), testuaren idazketa ere finean idazleak berak egiten duen testuaren aurre-irakurketa bat litzateke, oraindik gorpuztu gabeko testuaren harrera bat. Hau guztiarengatik teoria honek sorkuntza-prozesuaz eta idazleaz ere zer esanik baduela defendatzen menturatzen naiz.

Gure gaiari lotuz eta W. Iser-ek eraikitako<sup>15</sup> Hutsuneen Teoria gure artera ekarriz, metafora *leerstelle* gisa kontzeptualizatzea proposatu nahi dut. Lehenengoz "La estructura apelativa de los textos" lanean plazaratutako teoria honetan, testuak informazio bat eman ez edo erdizka ematen duen gureari deritzo *leerstelle* ('hutsune' edo 'informazio-zulo'). Baina ez da edonolako informazio ezak eratutako hutsunea, irakurlea betetzera behartzen duena baizik (ik. baita ere Iser 1987a:

---

14. «El concepto de lector implícito (...) se refiere al rol del lector factible en el texto, que consta de una estructura del texto [hots, gauzatua izan dadin testuak irakurleoi eskainitako kondizioak, testu-estrategien bidez eratutako preorientazioak] y de una estructura del acto [testuan apailatuta dagoen egitura hori irakurleak betetzea, gauzatzea]» (Iser 1987a: 69). Testutik obrarako pausua aztertzeke bidea argitzen duen kontzeptu honetaz ikus oro har Iser 1983 eta 1987a: 55-70, Antezana 1983: 121-127, Acosta 1989, Gnutzmann 1991 eta Saalbach 1995: 84-85. Dena den, ekintza-egitura kontzeptuan txertatzeak Iser-en irakurle implizituak sustrato enpirikorik ez daukalako baieztapena (1987a: 64) inkoherente bihurtzen ez ote duen itaundu beharko genioke geure buruari (Ik. arazo honetaz Wilson 1981: 853-858).

15. Iser-ek eraikitako teoriak, neurri handi baten, R. Ingarden-en (1989) testuan 'indeterminazio-guneak' daudelako ideia dauka zutabe. Indeterminazio-guneak honela definitzen ditu Ingarden-ek: «Llamaré al aspecto o parte del objeto representado, que no está específicamente determinado por el texto, 'lugar de indeterminación'» (1989: 37). Indeterminazio horiek betetzearekin batera testua konkretatzen ari da irakurlea, gauzatzen («A esta determinación complementaria llamo 'concreción' de los objetos representados», 1989: 38). B. Atxagak eraikitako Obabaren geografia, kasu, idazleak berak 'Faulkner taldea'n sailkatutakoa (*Linea d'Ombra*: 14), indeterminazio gune bat litzateke Ingarden-en zentzuan eta —hipotesi mailan plazaratzen dut hau— prezeski indeterminatua izate horretan legoke testu haren harrera zabalaren giltzarrietarik bat, zeren eta, guk geuk eta geure horizontearen zolan (ik. goian) konkretatzeko, gure esperientzia eta afektibitatearen bidez ere betetzeko aukera eskaintzen digun lipar beretik, geografia hori 'geure-geurea' izatea baimentzen baitigu (eta ez, edo bederen ez soilik, maiz entzun ohi dugun iritziaren kontra, autorearena: Atxagaren mundu imaginario mitikoa), Asteasuz edo Alkizaz hitz egin izan balu, adibidez, neurri horretan behintzat gertatuko ez zitzaigukeena.



280-309). Bada metaforak ere, indeterminazio-mekanismo bat izanik<sup>16</sup> (gorago erakutsi legez), testuan informazio-hutsune baten papera jokatu luke, ezinbestean bete egin behar dugun hutsunea. Betetze hori inplikaturak inferentzialki eratorriz burutzen dugu, bakoitzak norberari pertinentea zaion bidea aukeratuz. Bestela esanda, norberaren esperientzien, sentsibilitatearen, bizitzan zehar metatutako ezagutzen zolan betetzen da metafora sortzerakoan zein hartzerakoan, pertsona bakoitzak bere-berea duen esperientzia-horizontea dei diezaioketun horretatik eratorriz inplikaturetara eramango duten asuntzioak. Horizontearen nozio hau darabildanean H. Gadamer-en «egoera hermeneutikoa» kontzeptuaren zentzuan ari naiz («lo otro se muestra desde lo propio», 1989: 81)<sup>17</sup>, eta ez Jauss-en «igurikimen-horizontea» kontzeptuarenean (ik. oro har VII. tesia, 1976: 169-174), azken kontzeptu hau aurretiaz dugun literatura-ezagutzara eta honek gugan ernarazitako igurikimene-tara<sup>18</sup> pobreki mugatzen baita. *Esperientzia-horizonte* kontzeptuak testu bat irakurtzerakoan jokoan behiala irakurritako tes-

tuen oroitzapena baino harago norberaren egoera eta bizitza osatzen duten esperientzia guztiena dagoelako idea jasotzen du<sup>19</sup>.

Hemen proposaturiko *esperientzia-horizonte* nozio orokor honek soilik zio pedagogikoengatik bereiztuko ditudan hiru horizonte hartuko lituzke bere baitan: batetik, *bizi-horizontea* edota *horizonte bitala* izenda daitekeena. Bertan gure barne munduarekin (*imaginaire* delakoarekin, norberaren afektibitatearekin, etab.), kanpo munduarekin (hots, testuinguru ezberdinekin: kulturala, soziala, etab.) eta mundu-ikuskerarekin (bizitzaren eta munduaren gaineko planteiamendu ideologikoekin zein erlijiosoekin zein bestelakoekin) lotutako gure iritzi, sentimendu, esperientzia, informazio edota ezagutza oro metatzen da, bai eta elkarren arteko kognizio-ingurunearekin lotutakoa ere. Bestetik *horizonte literarioa*<sup>20</sup>, hainbat idazleren testuen irakurketa-esperientziatik jaso dugun testuen zein idazleen gaineko informazio bagaiak osatua. Eta, azkenik, obraren *barne horizontea*, alegia eskuartean dugun testuak berak osa-

16. Alboratu egingo ditugu, beraz, bai lexikalizatuak izanik bai erabat kontestualak zein kontzeptualak izanik determinazio-gradu altua erakusten duten metaforak (hala nola «lur jota nago», «nire oporrak gurpil horiek dira» edota «moralá altxatu zaio»), hain determinatuak izateagatik hain zuzen ere autore zenbaitek metaforatzat joko ez lituzkeenak (ik. honetaz Clark 1983).

17. Hau da, «Al concepto de situación le pertenece esencialmente la noción de *horizonte*» (1989: 82), «El concepto de horizonte se ofrece porque expresa esa *visión ampliada* que debe tener el que comprende. (...) Una verdadera conciencia *aporta siempre su propio presente*» (1989: 94), «en la comprensión hay siempre una *aplicación* del texto que hay que comprender a *la situación actual del intérprete*» (1989: 86) (aipuotan letra etzana nik jarria da).

18. *Expectativa* edota *expectative*-en adieran darabilt hitz hori.

19. «Los análisis de la recepción realizados sobre base empírica y con fronteras delimitadas permiten afirmar sobre seguro que la vida práctica ejerce un influjo en el modo de recibir unos textos determinados. (...) Las experiencias literarias de los receptores tienen únicamente un influjo significativo cuando se ha decidido interpretar en el marco del análisis microsemántico. Por el contrario, cuando se decide interpretar en el marco de un análisis macrosemántico se hace patente la importancia de la vida práctica, de connotaciones subjetivas» (Zimmermann, 1987: 57; ikus baita ere Ingarden 1989: 39 eta 49, eta Iser 1987a: 68-70).

20. Bertan jaso dagoen gure ezagutza esperientziala betetzen ari garen metaforaren egileaz eta bere testuez ere bada, jakina. Zentzu honetan kontzeptu honek gorago aipatutako Jauss-en nozioa ez ezik, Vodicka-ren «autorearen konkrezio orokorra»-rena ere besarkatuko luke (ik. Vodicka 1989: 74 eta Ingarden 1989: 42, 47).

turiko oihala, metafora agertzen den testutik eratorritako informazioak eraturiko zola.

Ohart gaitezen esperientzia-horizontean guri geuri dagozkigun aipatu eremuen inguruko informazio esperientzialarekin batera, delako autore baten eremu horien inguruko ezagutza ere, eskuratu ahala, almazenatu ahal dugula. Horregatik, ezagutza hori almazenatzen dugun une beretik eta heinean, posible zaigu testuak eskainitako metafora bat betetzerakoan (sortu, egilearen esperientzia-horizontearen zolan sortu dena) gure horizontearekiko loturan ez ezik autoreen horizontearekiko loturan ere bersortzen saiatzea. Edo alderantziz esanda, metaforak norberari diotsonaz harago autoreari ziotsona eratortzera entseiatzen garenean, autorearen horizonteaz nolabaiteko ezagutza bat daukagulako gure horizontean txertaturik (gure horizontea osatuz) gara entseiatzen. Honela aldi berean idazlearengana hurbiltzen gara eta, ezagutza horren jabe garen neurrian, autoreak (eta euren metaforak) ulertzen, ezen «el otro se hace comprensible cuando se ha reconocido su situación y su horizonte, sin que ello signifique que hay un acuerdo con él» (Gadamer 1989: 83). Adostasunaren beharrik ezaren zehaztapen honi funtsezkoa deritzot eta funtsezkoa ere metaforaren gauzatea hartzaile bakoitzaren berezko horizontearen fruitu dela azpimarratzeari, ene proposamenaren zirkulua osatzera baikaramatza honek: alegia, bestelako horizonte baten jabe den beste irakurle bat beti izango denez, hutsune bat den metafora bat sekula ezin izango dela era uniboko baten guztiz eta betiko bete edo itxi baiez-

tatzera<sup>21</sup>. Horrexegatik beherago doakizuen B. Atxaga eta J. Sarrionandiaren metaforen betetzea irakurle baten gauzate proposamen bat, betetze posible bat da eta ez gehiago, betetze honek ez duelarik inondik inora euren komunikazio-potentziala agortzen.

Dakusagunez, kontzeptualizazio honek ulerkera tradizionalen ildotik aldentzean defendatzen genuen metaforaren hainbat eremurekiko lotura (gogoratu: egilearen barne eta kanpo munduarekiko lotura, beraren mundu-ikuskerarekikoa, poetikarekikoa eta harrera-fenomenoarekikoa, hots, irakurlearen beraren eremu horiekiko lotura azken baten) bere baitan jasotzen du eta, honela, teorikoki euskarritzen. Kontzeptualizazio hau izango dugu gidari, beraz, aztergai ditugun egileen metaforak betetzerakoan. Bada betetze horri ekin aurretik, lotgakizkion metaforek idazle hauen lanean jokatu paperaren azterketari, kontzeptualizazio honen azalpena osatzera dator eta.

## **2. B. Atxagaren eta J. Sarrionandiaren metaforek testuan jokatzenduten paperaz hausnarketa zenbait**

Asteasuko idazlearen zein lurreta-koaren edozein lan eskuartean hartzean, eta bai bataren bai bestearen hasierako lanetako eta geroagokoe-tako metaforen artean ezberdintasunik egon badagoen arren (bakoitzak ibili bidearen islada dena hain zuzen ere, geroago ikusiko dugunez), zenbaitetan metaforak eurrez agertzeak baino gehiago euren papera nolana hiko ez izateak nau balditzen. Izan ere, irakurlearen parte-hartzea eskatzen

21. Ez da horregatik edozein betetze arbitrario zilegi dela ulertu behar, betetzea testuak –metaforak kasu honetan– jagon egin behar du eta, gorago esan dudanez (ik. Ingarden 1989: 41; Iser 1987a: 69; Saalbach 1995: 83).

duen metaforaren erabilpenaz mintzo gaitzke eta idazleen poetikaren islada diren hainbat paperez.

## 2.1. Metaforaren bidezko elkar-topatzea.

Esan daiteke, hasteko, uneoro irakurleoi parte har dezagun eskaintza zuzentzen diguten metaforen aurrean gaudela, «ixiltasun tonelada pare bat etorri zen kostako trenean bagoietan izerditan blai» (*Etiopia*, 85. or.)<sup>22</sup> edo «ez duzu aldegiten utzi behar / azkenengo tren» (*IGB*: 22) bezalako metaforek osatu hutsuneekin topo egitean behaturik baikaude berauek betetzera gure horizontetiko asuntzioak jokoan jarriz eratorritako inplikazioekin. Irakurle aktibo baten eskabide hau zuzenki lotuko litzateke literatur testu modernoan bilakaerarekin. H. Friedrich-ek (1974) lirika modernoaren ezaugarritzat aurkeztu zuen «deskribapenaren bazterketa eta sugerentziaren garaipena» haren zolan ere eskabide berbera geneukake, nire aburuz. Baina irakurleon parte-hartze aktiboa galdatzen duen metaforaren erabilpen hau, eta hain zuzen horregatik, gehiago ere badelakoan nago: irakurleok metafora hauek<sup>23</sup> bersortu behar ditugun une beretik, ko-kreatzaile egiten gaituzten lipar beretik, idazlearengana eta honen sorkuntza-ekintzara hurbilduko gaituen

bide bat ere bada. Urrunago joanez (urrunegi apika), bide hori aurkako norabidean ere egiten dela planteia daiteke. Hau da, idazleak jakin badaki irakurlea berak sorturiko metafora betetzera behartuta dagoela. Pentsa genezake, orduan, metafora sortzerakoan idazleak gogoan daukala hori (gogoan irakurlea, finean) eta, beraz, hor irakurlearenganako urrats bat ematen dela. Ez bedi, alabaina, irakurlea gogoan izate hori honen gustu eta igurikimenekiko menpekotasun baten zentzuan uler, B. Atxagaren «irakurlearen presentziak sorkuntza-ekintzan lana argiagoa eta konpartigarriagoa izatea dakar»relako iritziaren ildotik baizik (Lanz 1993: 86).

Ene ustez, testuotako metaforak idazleak eta irakurleak elkarrekin topo egin dezaketen gune izateak badauka zerikusirik beraien harrera zabalarekin, areago kontutan izanda maiz metaforen bidezko elkar-topatze hori<sup>24</sup> sorkuntza-ekintzaren mailan ez ezik (hau da, biak dira sortzaile metafora baten aurrean), betetzearenean ere eman daitekeela. Alegia, eta bakoitzaren horizontea indibiduala izan arren amankomunean estratu bat izateko posibilitateari<sup>25</sup> esker, metafora baten aurrean kideko betetzeetara iristek –edo iristeko aukerak– elkarrengandiko hurbiltasun sentsazio bat sorta-

---

22. Aurrerantzean idazlearen lanak euren izenburuaren inzialaren bidez aipatuko ditut, aipuen ondoan izenburu osoa behin eta berriro jartzeak testua korapilatuko bailuke. Bibliografian –“Laburdurak” deitu atalean– inzial bakoitzaren erreferentzia osoa aurkitu ahal izango du irakurleak.

23. Gogora bedi 16. oharrean esandakoa eta kontutan har hutsuneak osatzen dituzten metaforen –metafora indeterminatuen– kasuan dela hau suertatzen eta ez, ordea, metafora determinatuenean: haiek hutsune bat osatzen dutelako, alegia norabide bakar batean interpretatzera behartzen ez gaituzten inplikazio ahulak transmititzen dituztelako (Vicente 1993: 330), hain zuzen ere, bersortu ahal ditugu.

24. Errepara erabilitako kontzeptuan: ‘elkar-topatze’ diot eta ez ‘identifikazio’. Bigarren nozio –arriskutsu– honetaz den bezainbatean, oso egokia da irakurketa-prozesua identifikazioan eta *vicarious experience* baten datzala defendatzen duen teoria sasi-psikologikoari D.W. Harding-ek (1962) egindako kritika.

25. Posibilitate horren alde agertu naiz horizontearen nire ulerkuntza eskaintzerakoan ere, Gadamer-en ele haiekin bat etorritz.

razten ez ote duen hausnartzea interresgarria da oso.

Nolanahi ere, metaforak gure idazleen testuetan jokaturako papera ez da elkar-topatze aukera horretan agortzen. Hizkuntzaren, literatur sorkuntzaren eta mundu-ikuskeraren gaineko hainbat planteiamenduren emaitza ere bada, erlatibismoaren aldeko jarrerarena besteak beste, jarraian ikusiko dugunez.

## 2.2. Metafora, errealitate aldakor eta anitza agertzeko bidea

Metaforaren mekanismoaren eta bere erabilpenaren gaitasunei baga-gozkie, mezua –errealitatearen somaketa bat maiz– komunikatua suertatzea aipa daiteke hasteko. Egiaz, «Esperantza altzairuzko orratza da / hamaikagarren atean» (*GP*: 70) bezalako metafora baten indeterminazioak eratutako zuloa betetzera geratu behar dugunez gero, ez zaigu metafora hori edo, zehazkiago, berak transmititutakoa (esperantzaren nolakotasuna...) oharkabean pasatuko<sup>26</sup>. Honela zilegi da pentsatzea idazleek metaforaren bidez begiak zabaltu egiten dizkigutela errealitate horren aitzinean, errealitate hori hauteman egin dezagun<sup>27</sup> eta hauteman ere beste modu batez, errealitate horren beste alderdi bat, finean beste errealitate bat. Hots, lengoia dogmatikoaren adierazpide den komunikazio literalak errealitate bat eta bakarraren –Erreali-

tate ‘ofiziala’ren– islada eta, hortaz, baiezpena dakar (adib. «hiria jende anitz bizi deneko etxe multzo egitura-tua da»). Aitzitik komunikazio metaforikoak –eta soilik honek– delako errealitate hori beste modu baten isladatzeko parada eskaintzen die idazleei edo, gauza bera dena, metaforaren bidez idazleek bestelako errealitate baten aurrean jartzen gaituzte. Zergatik? «Klarionez marraturiko zirkulu hestua dun hiria» (*IGB*: 41) bezalako metafora batek aukera ematen duela-ko hutsune hori, hainbat asuntzio jokoan jarriz (besteak beste: ‘eremu bat itxi egiten du borobil batek’, ‘zarratua dagoenetik ezin gara irten’, ‘irtetzeko ezintasunak ito egiten gaitu’), “hiria ito egiten gaituen eremua da” inplikaturaren bidez betetzeko kasu. Horregatik, metafora bestelako errealitateak isladatzeko libreago denez (libreago «errealitatearen zirrikituetan sartzeko», *NENH*: 200), beraren erabilpenak Errealitate eta Egia bakarrari bizkarra emateko eta erlatibismoari ateak zabaltzeko idazle hauen nahiari erantzun liezaioke. Are gehiago, errealitatearen zirrikituetan sartzearekin batera errealitatearen beste alde bat azaleratzen denez (hiriaren beste aurpegi bat erakusten zaigunez), komunikazio metaforikoaz baliatze honek bat egingo luke poetaren «errealitatearen bestaldeak agerian uzteko» betebeharrarekin (*NENH*: 189), bai eta poesia errealitatearen imitazio («mimesia») baino gehiago errealitatearen sorkuntza («poesia») delako ideiarekin ere

26. S. Glucksberg, P. Gildea eta H.B. Bookin-ek esaldi metaforikoen eta ez-metaforikoen aurrean euren faltsutasun edo egiazkotasun literala erabakitzeke entzuleak behar izandako erreakzio-denbora aztertu zuten esperimentu baten bidez. Emaitzek erakutsi zuten (1982: 92), metafora ‘aberatsak’ (indeterminazio-gradu altua edukirik guk hutsunetzat joko genituzkeenak) ezin dira ignoratuak izan eta bai, aldiz, ‘pobreak’ (determinatuak, beraz *leerstellen* ez direnak).

27. Zentzu honetan ideia hori eta *ostranienie*-rena bat badatoz ere, ezin dira biak parekatu: azterketa honetan metaforari onarturiko papera errealitatearen somaketaren desautomatizaziotik harago doa eta, bestalde, ez da ezkontzen *opojaz*-eko teorilarien planteiamenduaren euskarri den desbideraketaren ideiarekin.

(*NENH*: 190): poetak errealitatea sortu egiten du poesian errealitateaz daukan esperientzia baino ezin islada dezakeen une beretik, eta gauza bera egiten irakurleak. Bada, hain zuzen, metaforaren bidezko komunikazioa idazle/irakurle bakoitzaren esperientziaren galbahetik iragandako norberaren errealitate horri testuotan sarbide bat eskaintzera dator, metaforak osatutako hutsunea ezinbestean bete egin behar baita eta bete, nor bere esperientzia-horizontearen zolan beti.

Baina metaforok egin, gehiago egiten dute: norberaren esperientziatik hurbil dauden bestelako errealitateak begien aurrean jartzea erdiesten duten era berean, komunikatutako mezua ere begietaratzea lortzen dute; errealitatearen somaketa desautomatizatzen duen era berean, automatizaturik eta gastaturik dagoen hizkuntzaren komunikatzeko ahalmena berreskuratzen. Hauxe dugu metaforak testuotan jokatzeko duen beste paper funtsezko bat.

### 2.3. Hizkuntzaren higadurari erantzuna, komunikazio ezintasunari irtenbidea

Ezaguna da Pott bandaren partaide hauek hizkuntzaren higaduraz duten kezka, erabileraren erabileraz antzu bilakatu den hizkuntzaz duten ardura. Iurretako idazlearen testuek sarritan isladatzen dute kezka hau:

zer lotsagarria den

errepikan hastea

batez ere hitzek esan nahi dutena geroago

eta gutiago diotenean

(*GP*: 112 zein *HINMY*: 215).

Izan ere, komunikatzeko gaitasuna agorturik duten hitzek osatua da hizkuntza, «bizimoduak makaldiriko hitzak» (*IGB*: 113) baino ez ditugu. Hizkuntzaren higaduraren arazoari bere inbertsonaltasunarena gehitu behar zaio: pozik bizitzeko yogurth fantastikoekin dirua aurreratzea nahikoa zaien haien hizkuntza klitxetu honek (*E*: 99) ezer gutxi dio geure errealitateaz, «diamanteen inbiritan datzaten koraletaraino» (*E*: 80) erakarria suertatzen den adjektibo kalifikatiboan hizkuntza hutsal honen hiztegiak ez dio ezer «kaletik doan / jendearen bihotzetaz», ezta ere «zutaz eta nitaz, / gartzela edo koarteletako / patioetaz» (*P&H*: 74). Atxagaren esanetan (1983: 141), «geure errealitatea adierazteko *hitzik ez dago*»<sup>28</sup>. Gainera, komunikazio ezintasun hau areagotu egiten da «gehiena esanda dago»en lipar beretik (*GP*: 112 eta *E*: 99), gehiena barik «dena esanda dago»en momentutik (*HINMY*: 215).

Egoera honen aurrean idazleek komunikaziorako bestelako bideak bilatu beharrean aurkitzen dute euren burua, komunikatzeko gaitasuna berreskuratzen duten hizkuntzaren aukeren bideetan barrena abiatu beharrean: metaforarenean, besteak beste<sup>29</sup>. Lengoia dogmatiko automatiza-

28. Letra etzana jatorrizko testuari dagokio.

29. Izan ere, egon badago bestelako biderik ere (hizkerekin —haurrenarekin kasu— esperimentatzearena, etab.). Bestalde, Borgesengan zein beste idazle askorengan ediren dezakegun dena esanda dagoelako ideia horrek, orijinaltasunaren ukapen horrek gauzak edo hitzak berresatea besterik geratzen ez zaigulako idazketa-jarrera lekarke berarekin (poetak aurreko poemien zatiek osatu *Etiopia*-ren azken poemaren bukaeran erakusten duen jarrera) eta intertestualitateari atek zabaltzearen aldeko apustua (*Obabakoak* gogoan hartzea besterik ez dago). Lan honetan ezinezkoa zaigu, haatik, ate hori zeharkatzea, komunikazio metaforikoaren erabilpenak berak gai honekin nolabaiteko lotura eduki lezakeenez gero (metaforaren bidez esanda dauden gauzak beste modu batez berradierazi, berresan ahal ditugu), erabat interesgarria bazaigu ere.

tuaren esaldiak irentsi egiten ditugu komunikazioa idorra eta pobrea bihurtuz (hortik «maite haunat»-ren osteko «etcetera etcetera» haiek, *E*: 58); artean metaforak («zure bihotza ene aingura» kasu, *IGB*: 24) posible ez ezik derrigorrezko ere egiten du informazio osagarri bat jokoan jartzea, hutsune hori aingurak dakarren lotura finkoaren inguruko inplikazioekin eta beste hamaikarekin bete behar baita. Honela, komunikazioa aberastu egiten da batetik eta, bestetik, betetze-ekin-tzaren beraren ondorioz, mezua irentsia suertatu beharrean komunikatua suertatzen da. Alegia, metaforak isladatutako errealitatea oharkabean igaro zekigun ekiditen zuen bezala, transmititutako mezua ere oharkabean pasa dakigun ekiditen du. (Oroitu, gainera, metaforak bai 'dioela zerbait gutaz', norberak sortua baita, nork bere esperientzia-horizontearen zolan betea, norberaren errealitatearekin lotutako asuntzio eta inplikazioen bidez ber-sortua).

«Metafora eta logistikaren artean» (*GP*: 113) dabilen J. Sarrionandiaren kasuan ziur aski argiagoa den bide honen ondoan, egoera berberari irtenbidea ere litzatekeen hizkerekin esperimentatzearena aurkitzen da, batik bat B. Atxagak hizkuntzaren tratamendu ironikoaren eskutik ibilitakoa. Tratamendu honek dauzkan hainbat agerpen ezberdinen artean bat interesatzen zaigu bereziki, idazleak *gag* deitutako haiena (1986: 150), ezen azken buruan lengoia dogmatikoa lehertaraztera datozen inplikazioen transmisioan –metaforaren mekanismoan, beraz– baitautza<sup>30</sup>. Idazlea

munduak eskura jartzen dion hizkuntzaren gramatika eta hiztegietatik apartatu beharrean badago (Atxaga 1983: 141), hizkuntza horretatik urruntzen den hizkera behar du; behar du odolez beteta dauden gramatika eta hiztegi horiek (Atxaga 1983: 141) eta eurek isladatutako errealitatea zauritu egingo dituen adierazpidea, eta zauritu, hizkuntza eta errealitatearen arteko erlazio berri bezain aldrebeskoak agertuz. Hizkuntza ezdeusa bilakatu delarik eta bera bezain higiturik dagoen bizitzaz esan daitekeena jada esanda dagoelarik, poetari zail egingo zaio esaten duen horretan zerbait (berri) esatea eta beharrezko, beraz, bere mezua esandakoaren bidez baino harago, bere asmoaren bidez eta bere asmoan komunikatzen duen hizkuntza-mekanismoa. Gogora ditzagun, esate baterako, *Etiopia*-ko ondoko lerrook: «ene maitaleak telefonoa jo zidan kobre zaporeko maitasunez gau erdian / Eguneroko bizitza ikatza bezalako labezomorroak ixurtzen hasi zenean etengabe» (*E*: 86). Bada, hitzok eurok zer 'esaten' dute? Ene iritziz, mezua ez dago honenbestez 'esaera oker' honek esaten duen horretan, baizik eta beraren bidez isladatzen den asmoan (errealitate eta hizkuntza dogmatiko edo ofiziala zauritzea, hizkera poetiko estereotipatuarekin apurtzea<sup>31</sup>, euren balioak –baita estetikoak ere– iraultzea, adibidez). Beste era baten esateko, komunikazioa baztertzen den hiztegi haren eta hizkera estereotipatuaren hitzetan ezin eman badaiteke, idazleari beharrezko zaio komunikazioa hitzotatik kanpo –asmoan eta inplikaturan– ematea posibilitatzen dion hizkuntza-meka-

30. Orokorki berba eginda, hizkuntzaren erabilpen ironikoak metaforikoaren ezaugarri bertsuak dauzka: komunikazio era honetan ere giltzarria esandakoan baino gehiago esandakoaren asmoan dago, gehienetan bere esaldiek ez daukate euren forma proposizionala komunikaturik eta inplikatura anitz transmititzen dituzte. Argi dago, hortaz, mekanismo biak elkarrengandik oso gertu daudela.

31. Ik. J.J. Lanzek B. Atxagari egindako elkarrizketa (1990/91).

nismoa: hitz batetan, adierazpide edo mekanismo metaforikoa.

Honek guztionek agerian uzten du, nire aburuz, idazle hauengan metaforaren erabilpena apaingarritasunaren zein bestelako ulerkeren tradizionalen barrutitik harago doala, euren poetikan daudelarik erroturik metaforak testuotan jokatu paper desberdinak, bai orain arte ikusitakoak, bai jarraian jasoko dudana ere: sentimentalismoaren arazoari ihardesten diona.

## 2.4. Afektibitatearen transmisioa sentimentalismoa saihestuz

Potten partaideen ahotan behin eta berriro entzun dezakegu lirika modernoaren ezaugarritzat jo izan den sentimentalismoaren debekua (ik. Friedrich 1974: 23-24), azken hamarkadetako lan askoren izaera poetikoaren iturburu den sentimentalismoaren arbuioa: «barru barruko sendimenduok, konfidentzia izkiriatuok, ez dira berez poesia» (*NENH*: 87) eta horregatik debekaturik dauka poetak aitorkizun sentimentalaren lehen pertsonan mintzatzea («Badakigu bederen, trés normal, trés normal, / ez dela posible lehen pertsonan mintzatzea», *E*: 99), debekaturik sentimenduen adierazpen huts eta zuzenean datzan poesia egitea. Debeku honek idazleak bestelako ildoak (ironiarena, adibidez) aukeratzera daramatzala egia bada ere, ez aitzitik euren testuak hotzak eta sentimen-

durik gabeak direla, frankotan baikaituzte hainbat poema zein pasarte narratibok afektibitatezko lanbro batez inguratzen eta gatibatzen. Baina, orduan, nola da posible poesia sentimentalaren ukapena afektibitatez blai eginda dauden poema edota testu narratiboekin ezkontzea? Nola da posible poesia sentimenduz egiten ez delako ideian (ik. *NENH*: 87) sustraituriko kreazioak gure sendimenduak pizten dituen testu bat fruitu izatea? Itxurazko paradoxa hau saihestera dator, hain zuzen, metaforak eta honen euskarri den komunikazio inplizituak testuotan jasotako beste erabilpen esanguratsu bat. Metaforaren bidea hautatzean, poetek «Bihotz, buztinezko Bihotz, / Etxe ttiki bat zara, / Ahula, hauskorra, lau gelatako» (*P&H*: 70) edota «Oroitzen zaitudanean, ama, / sukaldean egoten zara / (...) eta ni –badakit– / zure begien hondoa nagoela» (*GP*: 33) edota «Hemen eguna odolustutzen ari da / ortzemugan» (*GP*: 113) dioskutenean, afektibitatearen transmisio bat eman ematen da<sup>32</sup> eta, eman ere, sentimentalismoan erortzeke, zeren metaforotan sentimenduak esplizituki adierazita egon beharrean –sentimentalismoan ohi denez– inplikaturetan transmitituta baitaude, hots, 'esaten duten' horretan baino areago norberak hortik eratorritakoan (hauskortasunaz, begien hondoa egoteaz, odolustu-tzeaz adibidez), norberak bere sentsazio eta emozioak jokoan jarriz egiten duen betetzean<sup>33</sup>.

32. Hau da, komunikazio metaforikoa afektibitatearen transmisio-bide arrakastatsua suertatzen da (literala baino askoz arrakastatsua) eta hala da suertatzen metafora hutsune bat delako, bete behar dugun indeterminazio-gune bat delako, «orraz gorriak aidea han eta hemen eritzen» esaldi metaforikoa (*GP*: 38) gure esperientziak ez ezik, gure sendimenduak ere jokoan jarriz bete baitezakegu (orrazten zorrotasunetik mingarritasunaren inguruko inplikazioak eratorriz, adibidez, eta gauza bera 'gorri' eta 'eritu'tik); alegia, «izotzezko begirada zuzendu zidan» esaldi metaforikoan hutsune hori gure sentsazioekin ere betetzeko aukera daukagu, «bart izotzezko geruza sortu zen aintziraren azalean» esaldian ezer betetzeko ez dagoenez inolako sentsaziorik jokoan jartzen ez dugun artean.

33. A. I. Moralesek *Poemas & híbridos*-en gaineko bere azterketan (1992: 113, 13. oh.) «ahulezia sentimentaloiden» en ezabaketa ironikoa erakusten duten poemaren ondoan intuizten zuen bestelakoan

Laburbilduz, agerian geratu da aztergai ditugun egileen lanetan metaforak jokatzeko duen papera euren poetikaren oihartzun zuzena dela. Aldi berean, eta kontutan izanik oihartzun hori ezin dela hauteman metafora zentzu tradizionalan ulertuz gero (dela estiloaren desbideraketa edota apainduratzat ulertuz gero, dela sema zenbaiten ezabaketa eta gehikuntza eragiketatzat ulertuz gero), pragmatikaren ikuspegitik eta Harrera-Teoriaren magalean proposatu dudako ulerkerak indarra hartzen du. Areago testu narratiboetan –batik bat Atxagarenetan– metaforak hutsune bezala ez ezik (baina hutsune bat delako, hain zuzen ere), irakurketarako hari bezala ere jokatzeko duela aintzakotzat hartuta, erabilpen honek metaforaren kontzeptio tradizionala ez nahiko bihurtzen duen bestelako ulerkerak baitakar berarekin: arestian aipatutako testu-estrategiarena.

## 2.5. Metaforaren erabilpena testu-estrategia legez: B. Atxagaren poetikaren bilakaera

Testu-estrategiak irakurle inplizitua definitzean aipatutako testu-egituraren osagaiak dira: «la totalidad de la preorientación que un texto de ficción ofrece a sus posibles lectores» (Iser 1987a: 64), «marcas con que un texto 'prepara' el espacio lector» (Antezana 1983: 118), «claves introducidas hábilmente por el narrador (...), ofertas del texto» (Gnutzmann 1991: 15), «instrucciones para la producción de un significado» (Eco 1987: 12). Estrategia hauek irakurlea gidatu egiten dute –printzipioz, behintzat, hau da euren funtzioa– testua gauzatzekoan. Iser-ek dioenez (1987a: 141), «como potencial de conducción, señalan

previamente las vías de realización». Hauen artean sailkatu ohi dira, besteak beste, testuaren izenburua, hasiera, ironia, errepikapenak, eten-puntuak eta informazio-hutsuneak.

Testu-estrategia edo seinaleen esanplu gisa «Post tenebras spero lucem» (latinezko izenburua bera estrategia argia, bidenabar) narrazioko maistraren urratsen kontaketa ekar genitzake gogora. Hasiera batean, hau da, maistra herriko eguneroko bizitzan –gizartearen, kulturaren espazioan– murgildurik bizi denean bizimodu horren monotonia apur dezakeen edozein (inspektorearen bisitarekin eta tatuaiadun langilea ikustearekin) eta bere 'lagunik lagunena'ren gutunik jasotzearekin itxaropentsu, urratsak kopuruz guti dira: 130 pausu + 40 + 80 = «denetara berrehun eta berrogeitar pauso» eskolatik itzultzean, 700 pausu + 300 + 500 = «denetara mila eta bostehun pauso» paseoa ematean bere urtebetetzean, etab.; aldiz, asko dira narrazioaren giltzarria den unea iristean, hots, bere urtebetetzean bere 'lagunik lagunena'ren postalik jaso ez eta bere bizitzaren euskarri zen itxaropen hura lurrera erortzean:

postale bakar bat ikusi zuen ateko zirrirituan. Bere guraso eta anaiarrebena zen postalea. (...) maistrak oinez segitu zuen, mendi aldera, eta zazpi mila pauso egin zituen segidan, (...) eta gero beste bost mila (...) eta hurrena, Albaniarantz itzuliz, lehengoak eta bi mila gehiago. (...) hogeitasei mila pauso (55. or.).

Alegia, hasierako pausuek –hain kopuruak– maistra denbora guztian espazio estuki zedarriztatu baten barruan (gizartearen, kulturaren espazioaren barruan, hain zuzen ere) eta

«xuabetasun» hark komunikazio inplizituaren mekanismoek baliatze hauxe du iturburu eta azalpen, ene ustetan.



bere mugak zeharkatzeke ibiltzen ari zela (eta bizi ere «setiatua bizi nauk hemen», 42. or.) seinalatzen diguten bitartean, hogeita sei mila pausu hauek espazio estu horretatik at eta urrun irten delako seinale dira: kulturaren espazioaren mugak zeharkatuz «mendi aldera», basoa den estra-espaziora atera delako seinale. Honela, kulturaren islada argia den maistraren «bihotz etsia errebelatu egin»go da ordurarte espazio haren barruan bizi izan den neskatila txintxoaren aurka (58. or.) eta basoarekin lotzen den Manuel –basatia– bere etxean lo egitera gonbidatuko du. Transgresio honek ezinezko egingo du aurrerantzean gizartearen espazio hartan onarpenez bizitzea: jendearen esamesen ikaraz biziko da horregatik, eskolatik etxerako itzuleran «berrehun eta hirurogeitazazpi pauso eginez» buelta bihurri bat egiteak erakutsi legez (60. or.)<sup>34</sup>.

Gatozen metaforaren gaiaren eta B. Atxagaren testuen esparrura. Hutsune bat den metafora, irakurleoi betetzeko eskabidea –geratzeko gonbitea– zuzentzen digun metafora, gure irakurketa gida dezakeen testuaren seinale ere bada, zeren, oharkabean igaroko ez zaigunez, irakurketarako garrantzitsua litzatekeen informazioa transmititzeko erabil baitaiteke. Testuaren gure

aktualizazioa bideratzera zuzentzen diren metaforak (horrexegatik testu-estrategiatzat jotzen ditudanak) era ezin argiagoan<sup>35</sup> aurkitzen ditugu *Zeruak*-en. Errepara diezaiozun, adibidez, autobusak Bartzelonako azken auzoak zeharkatutakoan esaten zaigunari: «[zeruak] orain ebaki bat zeukan, eta ebaki hori urdina zen» (23. or.). Bada metafora honen betetzeak zeruaren aldaketaz jabetzera baino harago garamatza, gure begirada emakumearengana zuzentzera, jakin baitakigu (eta jakin ere obraren barne horizonteari esker, testutik eratorritako informazioari esker) zerua «norbaitek huriaren gainera botatako izara zikina» zela emakumea Bartzelonan zegoen artean (11. or.), hau da, gartzelako bizipenetatik urrundu nahiak, edozeinen begiradaren beldurrak, Andonirekiko amorruek eta, areago, gartzelaz kanpoko bere lehen gaua grakaz zikindutako izara zikinen artean pasatu izanak artega zeukan artean<sup>36</sup>. Bartzelonatik, «min ematen zion» izara itxurako zeru horretatik eta hoteleko izaretatik hastantzeaz batera emakumea lasaituz doalako inplikaturaren bidez beteko dugu goiko metafora, zeruaren itxura aldaketaren inguruko inplikazioetatik harago emakumearen barne egoeraren aldaketaren ingurukoak eratorriz. Gauza bera egingo

34. *Kulturaren espazioa* eta basoa bezalako *estra-espazioa* kontzeptuez ikus Atxaga 1990: 14-15.

35. Ene ustez, testu horrek jatorriz zeukan irakurketa-izaerari zor zaio, neurri handi baten, metaforek testu-estrategia legez izandako erabilpen hain argi eta erabakiorra. Hipotesi honek bat egiten du honela jendaurrekotasunak testuari teknika berezia dakarkiolako G. Markuletaren azalpenarekin (1994).

36. 'Zerua-izarak' joko hori planteiatzerakoan idazleak gure igurikimenekin jolasten ez ote duen pentsa genezake, zeren Bartzelonako zeruaren gaineko metafora hori eskaini eta jarraian, berau oharkabean igaro ez dakigun, izara itxura hori nolana hikoia ez dela azpimarratzen bazaigu ere («Bere izara itxurak beste izara batzuk ekartzen zizkion gogora», 12. or.), ezin dugu metafora hori momentuz bete, horretarako behar dugun hoteleko izarei buruzko informazioa, goiko gaztigu horren atzetik eskaini beharrean, gerorako gorde duelako idazleak. Bestela esanda, hasieran edozein izara zikinen inguruko inplikazioekin (gartzelako ingurukoekin, kasu, emakumearen jaiotetxeko «izara txuri-txuriekin» kontrastean) betetzera tentatu eta betetze hori alboratu beharrean jarriko gaitu idazleak lerroak aurrera, hotel merkeaz eta bertako grakaz zikindutako izara nazkagarriez hitz egiten digunean (18. or.), orduan dugularik berbeteko, bersortuko zazpi orrialde lehenago irakurri dugun (edota zenbait minutu lehenago entzun dugun) metafora hura, bai eta geroxeago (23. or.) agertzen zaigun haren errepikapena ere.

dugu hurrengo kasuan ere: «Hasiera-ko ebakia tarrateko bat zen orain, zulo urdin eta sakona» esaten zaigunean (25. or.), neskak «Zer arindua!» suspiriatzen duenean «Barcelonako buzoian utzitako gutuna gogoratzuz». Eta orobat hurrengoetan: «zeruaren ertz batek hari gorri bat zeukan» geroxeago, zehazki emakumeari Bartzelonako tren-geltokiko «traje marroi eta korbata gorriko gizona» hurbiltzen zaionean, (33. or.), eta arrasto gorritz zein urdina ez den beste koloreez betetzen joango da, poliziarekiko elkarrizketa aurrera eta emakumearen urduritasuna haziz joan ahala (38. or.). Honela, zeruaren gaineko metaforak zeruaz ez ezik emakumeaz ere hitz egiten digunez, alegia, erreferentzia paisajistikoa baino gehiago argumentuari lotutakoa denez, gure partizipazioa gidatuko duen hari bat osatuko du testuaren oihalean, aldi berean testua albainduz.

Ez da hau, izan ere, metafora testu-estrategia edo seinale legez erabilia izan den kasu bakarra. *Zeruak*-en garapena litzatekeen *Zeru horiek*-en ere halakorik daukagu, albaintze aberatsago batekin gainera, emakumearen barne egoerarekin loturik legokeen hari harekin batera bestelakoak ere agertzen baitzaizkigu oihala osatzen, hala nola sixtina-kaperaren gangaren inguruko haria, 'zerua-pentsamenduak' haria (Dideroten bere pentsamenduei zeruko lainoei bezala jarraitzen zielako baieztapenarekin lotu genezakeena), autobusaren tratamendua ia abioia bailitzan («Autobusa hegan bezala dihoa. Abioia bezala tratatzen dut kon-

turatzen naizelako zerua daukadala metafora-gidari bezala. Metafora honek autobusaren beraren martxa ere ikutu egin behar du»<sup>37</sup>), etab. Aurretiaz ere, *Obabakoak*-eko «Klaus Hanhn» narrazioan zehazki, baliatu izan da estrategia honetaz Asteasuko idazlea. Narrazio horren oihala arrainaren metaforak bilbaturik dago. Gogora dezagun kontatzen zaiguna: betiko bizimoduarekin bukatzeko banku-zuzendari baten familiaren bahiketa (eta hilketa) burutu duen Klauser aurrerantzean soseguz bizitzea du amets, «loak hartutako arrain bat bezala, uraren norabideari amore emanetz» (293. or.). Amets horrekin loturik, bere asmoa Dortoken irlara alde egin baino lehen geratzen zaion azken eguna goizetik gauera gozatzea da. Alabaina, okertzen hasiko zaizkio gauzak. Badaki erne ibili beharko lukeela, arrainak ere erne baitaibiltza:

Lotan ere, arrainek ez zituzten beren ametsak eta beren ametsen aurkako indar ilunak ahazten; lotan ere, erne ibiltzen ziren, beren burmuinetako zatiren bat esna utziz. Exenplu hari jarraitzea komeni zitzaion (294. or.)<sup>38</sup>

Baina ez dio exenplu horri jarraituko: arropa saltzaileari bere bidaiaren berri eman eta ikaritzen hasiko da, urduritzen errestaurantean *savarin* zer den jakin ez eta aberatsa bailitzan ezin jokatzean, zorabiatzen ardoaren ondorioz. Bere aztorapen eta itomena areagotu egingo zaizkio ondoan ez kasualitatez daukan arrainontziaren ikuspeinarekin<sup>39</sup>, bai eta zerbitzariari bidaiaz

37. Autorearen komunikazio pertsonala. Hitz horiek ez ezik, goian aurkeztutako hainbat harien inguruko ideiek ere autorearekin izandako solasaldi hori dute iturburu.

38. Ene iritiz, zeharo esanguratsua da, gainera, gaztelerazko bertsioan metafora hori garaturik agertzea: (euskarazkoan zein gaztelerazkoan berdin datozen hitz haien jarraian) «No debía olvidar que existían otros peces, insomnes, vigilantes, más poderosos que él; peces que olían la sangre y sabían seguir su rastro. Debía cuidarse de ellos» (271-271. or.).

39. Berriro ere, gaztelerazko bertsioan Klausen pertsonaiaren muinean dagoen arrainaren metafora bilbatuago dago —eta berari esker bilbatuago, hortaz, testua— haren eta ontziko arrainen arteko lotura

egindako aitorpenagatik lotsa ere arrain haien larderiakzko begiradaz ohartzearekin (305. or.). Izan ere, bere burua «arrain ttikia» legez aurkezten duen gizon hau (302. or.) pertsonaia atormentatua dugu, trufaz eta modurik mingarrienean hitz egiten dion, umiliatu egiten duen, hiltzeko aginduak ematen dizkion anaia ttikiak alatua<sup>40</sup>, zeina, Klausek uretara bota eta ito zenetik, «bere barrenean bizi zen» (290. or.): arrain batek bestea barnean.

Harago joan gintezke. Bernardo Atxagak lanotan metafora, apaingarritasunari begirako baliabide erretoriko bezala erabili beharrea, testuaren garapenarekin loturik dagoen estrategia legez erabili izanak bere poetikan gertaturiko bilakaera isladatzen du, nire aburuz: hizkuntzaren tratamendu ironikoarekin lotutako metafora oso indeterminatu haien bidea utzi eta metafora idazketa-lanabes bezala –modu logiko baten– erabiltzera zuzendutako garapena, hizkerarekin esperimentatuzetik (eta usu hortik jaiotako hermetikotasunetik) logikotasun eta argitasunerantzako pausua. Begibistan dagoenez, pausu honek markatu puntura (zein, oro har, metaforek testuotan jokaturiko gainontzeko paperek seinalatutakoetara) ezin irits gintezkeen metaforaren teoria tradizionalen bidetik urrundu ezean, eta antzekorik gertatuko zatekeen testuotako metafora zehatzekin topo egitean zer den ordezkatzan edota gonbaratzen, zeintzuk sema diren ezabatzen eta

zeintzuk indartzen aztertuz adierazpen metaforiko horien atzean –finean inplikaturetan– dagoena irakurtzen saiatuz gero. Horrexegatik aurkeztu dut metaforaren bestelako ulerkera bat eta horregatik ulerkera honek gidatuko nau jarraian ere metafora ene ustez esanguratsu zenbaiten irakurketari lotzerakoan.

### **3. Metafora zenbaiten betetzearen inguruan: hauskortasunaren eta hondamendiaren inguruko metaforatik, parkearen metaforara**

J. Sarrionandiaren lanetan nahiz B. Atxagaren bereziki poesian murgildu bezain laister, kristalaren –batik bat lurretako idazlearen lanetan–, elurra- ren, errautsaren, harearen erresuman barneratu garelako sentsazioa jabetzen da gutaz. Izan ere, kristalezkoak dira desirak (*N*: 94), «begiak kristalezkoak» (*IGB*: 47, 134; *N*: 50), «begiak kristaldurik» (*HIHN*: 20) dauzkagu eta «beirazko betseinak» (*E*: 61). Malkoak ere kristalezkoak dira (*E*: 80) zein elurrezkoak (*IGB*: 47). Kristala eta elurra ez ezik (ik. adib. “Ezagutzen duzu negua?”, *HINMY*: 63-64), errautsa ere kausituko dugu nonahi: «zure begietan errautsa dago» (*N*: 88), «Errautsa dit ezpañetan» (*IAO*: 58), «Ihintzagarra oilar eta errautsen gainean pausatzan» (*N*: 95), hausterrez zipriztinaturik dago bekokia (*E*: 35), hausterrez basiturik (*E*: 37). Eta hauekin batera harea ere agertuko zaigu: «Egipto

(itolarrian datzana eta, aldi berean, gure pertsonaiaren itolarria areagotzen duena) hari finkoagoz ezarri baita: euskarazkoan ez bezala, «estaba dentro de una pecera, igual que los peces tropicales del restaurante. Sólo que la pecera en la que él vivía era más pequeña. Le asfixiaba, le hacía sudar» irakur dezakegu gaztelerazkoan, euskarazkoan berdin datozen hitzen ostean (278. or.).

40. «Loak hartutako arrain bat izan nahi zuen, itxasoan edo ibai lasai batean, eta uraren norabide berberan joan aurrera, gero eta libreago, gero eta urrutiago. Baina agian ez zen bere nahirik beteko, ez zuen itxaso edo ibai lasairik aurkituko. Gertaera hutsal bat eta erori egiten zen, dudatan jartzen zituen bere ametsak. Eta errurik haundiena bere anai ttikiak zeukan, lagundu partez aurka jartzen zitzaiolako» (301. or.).

–hauster– hainbat harea» (*E*: 78), hareazkoak sateliteak, desparadisoa- ren zutabeak, aidea, «Gauero ez da harea baino geratzen» (*E*: 77). Bada, kanpoan ez ezik, gizakiaren baitan ere aurkitzen dugu harea («Harea egotziz bihotzek / Harea erakarritz», *E*: 77) eta elurra: «Elur malutak (...) ene baitara erortzen dira» dio Ossianek (*IGB*: 100) eta Matalas zaharraren «laru zuriaren azpian, berriz, bazirudien elurra erortzen ari zitzaioa» (*IAO*: 55). Izan ere, bihotza bera da elurrezkoa (*GP*: 61), errautsezkoa (*AEE*: 49), «kristalezko bihotza» da gurea (*N*: 34 eta *AEE*: 22), «buztinezko Bihotz» bat (*P&H*: 70).

Sare bat osatuko luketen metafora hauen betetzea (potentzialki anitza izatearekin batera erabatekoa ez eta behinbetikoa ere ez dena, 1.2. atalaren bukaeran esaten nuenez eta esaten nuenagatik) mundu-ikuskeraren zolara hurbiltzen gaituzten hauskortasunaren eta desolazioaren ideien bidez egin daitekeelakoan nago. Hurbilpen horren aukeran datza, agerpen naharoan baino areago, metafora hauek nire iritziz duten garrantzia.

### 3.1. Mundu hauskorra, gizaki hauskorra

Hauskortasunaz mintzo naiz «begiak kristalezkoak / haustear» daudelarik (*IGB*: 134) eta Matalas agurea «azal azpi guzian maluta zaharrak pilatzen zitzaizkiola (...) hotz hotza eta

hauskor geratu» delarik (*IAO*: 56). Hauskortasunaz mintzo gaitetzke elurrezko hegaztia den bihotza «esperantzeta doi batez aidean, eguzkitan urtzear» dagoelarik (*GP*: 61) eta, orobat, «errurik gabeko bihotz hauskor bat» delarik «Kristalezko bihotza» narrazioko umearena (*N*: 106). Hauskorra izanik hautsi egiten da bihotza (gogoratu «buztinezko Bihotza») eta hautsi ere arrabita, magnolia, basageriza... dena («hire irudi hauskorra» izan ezik: ik. *IGB*-ko «Hautsia» poema). Mundua, errealitatea bera fragmentarioa da (ik. *NENH*: 104-6), haren islada eskaintzen duten ispiluak hautsirik daude (J. Sarrionandiaren lanetan maiz agertzen zaigun metafora: ik. *IGB*: 113, *AEE*: 15 eta 16, *HINMY*: 82).

Hauskortasunaren<sup>41</sup> inguruan erator ditzakegun inplikazioak anitzak dira, eta usu osagarriak, anitzak baitira metafora hauen betetzean jokoan jar ditzakegun asuntzioak, norberaren horizontean munduaz, planteiamendu filosofiko, ideologiko zein literarioez, testu ezberdinez, autoreez, etabarrez metatutako ezagutza esperientzialaren arabekoak. Metaforok, honela, kristautasunaren, positibismoaren eta progresurantz zuzentzen ei den gizartearen teorietan sinismena galdurik, anphora hautsirik, mundua sostengatzen duen «ideia salbatzailerik»<sup>42</sup> ez dagoelako planteiamenduaren zolan bete genitzake, kasu. Halako ideiarik ezean eta geroaz zein edozertaz ziur-

41. T.S. Eliot-en *The Waste Land*-en ere hautsirik dago dena, *Waste Land* edo *Lur Eremuaren* aktualizazio datekeen «Londreseko zubia erori egiten da» larik, eta «puska hauk ene hondakinetan sostengatu ditut» (J. Sarrionandiaren itzulpena, *LE*: 151); gauza bera *Gizon Hutsak*-en (Ik. G. Aresti, J. Sarrionandia & J. Juaristi 1983). Egile honengan zein F. Pessoaengan («Meu coração é uma ânfora que cai e que se parte», 19903: 50) zein beste hamaika idazlegan ere agertzen den hauskortasunaren sentimendu honen orokortasuna aztertzea interesgarria litzateke oso. Tamalez, lan honen muga fisikoek ezinezko bihurtzen dute halakorik oraingo honetan. Hartara, eta gai garrantzitsua begitantzen zaidanez, dagoeneko abiatan dagoen B. Atxaga eta J. Sarrionandiaren metaforei buruzko ikerketa zabalagoan (hasierako oharrean aipatutakoan) aztertuko dut.

42. B. Atxagaren beraren hitzak dira (ik. J.J. Lanz-ekiko elkarrizketa, 1993: 86).

tasunik –Egiarik– badelako siniste lasaigarria galdurik<sup>43</sup> (galdurik, finean, ordurarte paradisu kristau edota sozial legez agindutako etorkizunean itxaropena), mundua kolokatia eta hauskorra sentiitzen da: «Todo está roto y ése es su estado natural», Atxagak zioenez (Lanz 1993: 86). Etorkizunaz esperantza barik («urkamendia jasota jadanik etorkizunaren bihotzean bertan», *E*: 78) eta bizitzaren zentzu eta norabideaz argia eman zezakeen ideia salbatzailerik gabe, gizabanakoa galdurik dabil prekarietate horren erdian. Bizitzaren eta 'ni'aren zentzu zehatza galdurik («hi hintzena / bi arraia zaharren gurutzaketa / galdu da, galdu haiz», *E*: 35), «nor den, bere burua nortzu diren ere» ez dakielarik (*IGB*: 12), ibili noraezean dabil erreferentziarik gabeko munduan: erreferentziarik gabeko basamortuan, itsasoan («Itsasoa baita basamortuaren beste izena», *E*: 80), elurrak estalduriko eremuan («elurra bait da –ur kristaldua– laberintoak har dezakeen forma perfektoenarikoa, desertua eta itsasoarekin batean», *IAO*-ren atzeko azalean)<sup>44</sup>. Sentipen honen eskutik, «zakur deslaiek» inbadituko dituzte Potten magalean jaiotako testuak<sup>45</sup> (ik. *IGB*: 19, 24, 39, 139; *E*: 88), «desnorabideturik» dabiltzan hegazti errariek (*IGB*: 17, 104; *MZ*-n, berriz, «galdurik»: 120. or.), «arlekin noragabeak» (*IGB*: 113), «itsasontzi noragabeak» (*IGB*: 44), itsua den lemazainak gidatuak (*E*: 70); «Noraezean iragaiten ditugu oskarbiak (...), balizko itzulbide-

ren baten bila» (*IGB*: 138), «espaloietan aitzina noraezean» (*IGB*: 79). Izan ere, noraezean galtzearen beldurrez, «labyrinthoan» (Egia bakar bat, bide bakar bat ez dagoelarik<sup>46</sup> bizitza aukera-sorta bat bihurtzen da, laberinto bat) haria sostenga dezakeen lokarria ezin aurkituz, oroitzapena bederen sostengatzeko bidaztiak eskribatzen duen bitakora kaiera bera «noraezaren bitakora kaiera» da (ik. *IGB*ren sarrera poema).

Esan genezake, beraz, norabiderik ezak, bizitzaren zentzuaren galerak hauskor egiten gaituela. Zentzu honean, eta oraingoan ere irakurleok gauzatze ezberdinak burutu baditzaiegun ere, Mañarira etorritako Arthur eta Ginebrari buruzko istorioan azaltzen zaigun ondoko metafora galera horren planteiamenduaren bidez bete genezake: «Hil egin da Graal sailduaren esperantza guzia, esperoa besterik ez uzteko, *hautsi egin da kristalezko bihotza* eta herbesteko lurretan barreiaturik geratu dira puskak, xederik gabe» (*N*: 34; letra etzana nirea da). Jauzi bat egitea bada ere, zilegi bekit Arturoren kondaira gure artera ekartzea: zaldunen jokaera bidegabeak eta indarkeriak gobernaturako erresuma heredatu zuelarik, haien izatearen funtza zen ekintza-gogoia bideratu beharra zegoela konturatu zen Arturo. Horregatik eta horretarako, haien indarrak (borrokak, bizitza finean) norabide justu baterantz zuzenduko zituen Mahai Borobila sortu zuen. Zio berberak

43. Etorkizuna zalantzazkoa da Eliot-en «Madame Sosostri, igarle ospetsua»rentzat berarentzat ere, asmaezina, zuria, existentziarik gabekoa: «zuri dagoen / Karta hau, zeozer eusten du sorbaldan, / lkustea zilegi ez zaidana» (*LE*: 129).

44. Ideia berbera agertzen du Asteasuko idazleak ere A. Gabastoureko elkarriketan (1993: 4): «Erreferentzia guztiak izkutatu egin dira, ez dago biderik. Elurrak edozein toki basamortu bihurtzen du. Itsasoa ere basamortua da, biderik, erreferentziarik gabea».

45. *MZ*-n jasotako *IGB*-ko poemetan, alabaina, «zakur desleialak» aurkitzen ditugu (ik. 100 eta 108. or.). Errakuntza ala zuzenketa?

46. B. Atxagak zioena gomutatuz (*Linea d'Ombra* 1993: 11), inork ez dauka autoritate moralik «Hau da bide zuzena» esateko.

bultzaturik geroago, Mahaiak hondoa jo eta honek ordurarte eskaini bizitza-zentzua galdurik zaldunak hasierako egoerara itzultzean, Grial Saindua bilatzeko misioa zabaldu zuen. Bada «Graal sailduaren esperantza» galduz gero (eta hala da agitzen Arturoren kondairan, dela aurkiezina suertatzeagatik zaldun gehientzat, dela azkenean Galahadek aurkitu eta aurrerantzean zaldunak 'zer bilatu' gabe, xederik gabe geratzeagatik, euren pausuak norantz gidatu jakin gabe, gero eta degradatuago<sup>47</sup>), gizakioi ez zaigu gure bizitza gida edo sostenga dezakeen ezer geratzen<sup>48</sup>, eta hautsi egiten gara.

Urrats bat emanda, mundu-ikuskera horren osagarri litzatekeen halabehararren eta betikotasunik ezaren planteiamendua ere gerta dakiguke metafora hauen betetzerako zola. Alegia, gure bizitza nahi jainkotiarren gidaritzapean zein kausalitatearen lege logiko-arrazionalen menpe dagoela ukatzearekin batera, halabehararren esku gaudelako sentipenak indarra hartzen du gure baitan eta honek hauskor bihurtzen gaitu, haren 'jira-bira eta jauzien' menpe baikaude, dantzariaren oinen azpiko kristalezko ontzi hauskorren gisa, *Obabakoak*-en jasotako Th. Gautier-en hitzek gogorarazten digutenez:

Hara ailegatu nintzenezan jaiak ziren herrian (...) eta hara zer ikusi zuten nire begiek: kristalezko ontzi fin bat lurrean jarrita, eta hanka arin eta biziko dantzari bat haren inguruan jiraka eta bueltaka. Urrutiratu egiten zitzaion, hurbiltzen, berriro urrutiratzen; zenbaitetan, jauzi egiten zuenetan eta, objetu hauskor haren gainera eroriko zela ematen zuen, eta zapaldu eta hautsi egingo zuela. (...) Pentsatu nuen zu bezalako andreak eta ni bezalako gizonak kristalezko ontzi hura bezalakoak garela, eta behin baino gehiagotan sentitu izan dugula dantzari ikustezin bat geure inguruan jiraka eta biraka; bizitza sortzen, gidatzen eta kentzen duen Dantzari hori, zeinek –plazakoa baino traketsagoa izanik– azkenean zapaldu eta hautsi egingo gaituen (269. or.).

Zapaldu, hautsi eta hil, apurterreza, urterreza, galkorra da gure bizitza, betirauna barik finitua (basamortuan hilezkortasunaren bila noraezean dabilen Gilgamesh-i poetak gaztigatu legez, *IGB*: 77) eta berdin haren sostengu liratekeen gauza oro:

Bai, Gilgamesh, galdu eginen duzu bizitzaren landarea, (...) Baina zergatik nigar?

Ez al da itzaltzen halaber argia zokoetan?

Eraikitzen al du inork betirako etxerik?

(*IGB*: 77).

Honela, kristalezkoa<sup>49</sup>, elurrezkoa, errautsezkoa<sup>50</sup> da bihotza, hilkorra

47. Ik. White 1982, III lib., xxvi kapituluaren Gortean hedatzen den degradazioaren deskribapena.

48. «El entusiasmo del cáliz quemó los malos gases del aire, convirtiéndolos en una belleza efímera. Ahora se presentaba la fase más triste o real, en la que el entusiasmo se había extinguido para siempre (...). A Galahad ya no le quedaba nada que pedir a Dios, más que la muerte» (White 1982, III lib.: 211).

49. Iradokizunak iradokizun, gorago jasotako «Hil egin da Graal sailduaren esperantza guzia, esperoa besterik ez uzteko, hautsi egin da kristalezko bihotza» metafora betikotasunik ezaren ideia honen bidez ere betetzea posible da, mundu zeltikoan Graala –eta bere aurkikuntza– hilezkortasunarekin loturik zegoela gogoan hartzea posible den aldetik.

50. Errautsak –eta honen gainean eraikitako metaforek– heriotzaren inguruko inplikazioak eratorzera eramán gaitzake maiz (eta ez soilik tradizio kristauaren zolan). Ik. adib. “Oroitzen ditugula oroituz” (*HINMY*: 226).

baita (ik. *AAE*: 49), galkorra, eta galkorra maitasuna bera ere, ezen «amodioa aldi baterako baino ez da. Ez da sekula betirako» (*AAE*: 54). Horregatik dira

hauskorrak halaber maitasuna eta armiarmaren etxea  
(...) Berokietan soilik irauin dezaketean Inoiz Beti edo Bihotza  
Bezalako hitzek

(*E*: 88).

Eta horregatik agertuko zaigu berriro ere kristalaren metafora («Amodioa zer den, hor badiagok lekzio bat, kristalarena», *AAE*: 78) edo, urrutia-gotik ekarria bada ere, errautsarena («zure begietan errautsa dago, amodio galduen errautsa», *N*: 88).

Azken metafora honek –errautsaren metaforak– hauskortasunaren eta betikotasunik ezaren inguruko inplikaturerara eraman gaitzake, baina baita harago ere: desolazioaren inguruko inplikaturetara, suaren ondoriozko hondar eta suntsiduraren ingurukoe-tara. Beste era batez esanda, metafora hau, bai eta irakurketa honetan sare baten barruan aurkeztutako enparatuak ere, hauskortasunaren planteiamenduaren zolan ez ezik, hondamendiarenean ere bete genitzake, hasieratik iradoki dudanez.

### 3.2. Hondamendia gizabanakoaren inguruan eta barnean

Esan bezala, hauskorra da gizabanakoa, inongo 'Grial'en esperantzarik gabe hauskortasunezko munduan eta hauskortasunak bihotza estututa (ik. *AAE*: 115) bizi delarik. Bizi, hondamendi eta suntsiduraren erdian bizi da, elurrez zein errautsez inguratuturik (odol galdu eta hondarrekin batera errautsa dago kaleetan, *HINMY*: 27, errautsa hirian, *N*: 21), hausterrez basituri (ik. *E*: 35, 37), hautsez (*E*: 94) zein hareaz «Harearen erresuma» amaigabeetan (basamortuan, itsasoan: ik. *E*: 80, *AAE*: 28). Eiki, Arestiren Harizko Herri finko eta tinkoa baino areago harria hautsi eta birrintzean geratutako hondarrena, harearena da gurea: oinak harri txintzarretan dauzkagu (*E*: 35) eta suntsidurak ekarritako errautsetan murgildurik gaude, desolazioaren elur malutek mortu bilakaturiko lur eremuan, azken buruan T.S. Eliotek *The Waste Land*-en irudikatutako<sup>51</sup> «Europako sartaldearen egungo hondamendi egoera»n (ik. poema honi Elioten beraren oharra, *LE*: 165). Bestela irakurriz, gurea ez da Bilboko poetak herri berezi eta aparteko bezala mitifikatutako Harizko Herri hura, sartaldeko herrien kulturaren eta historian, harearen erresuman bertan txertatzen dena baizik<sup>52</sup>.

51. Eta irudikatu ere harearen, errautsaren, hautsaren metaforen laguntzaz, «hauts eskukada»k eta «Tranbia eta zuhaitz hautsezatuak» gure begietara ekarri (*LE*: 128 eta 142).

52. Euskal Herria eta Euskal Kultura gainontzeko herri eta kulturetatik berezirik ikusi izan da –erromantizismoaren eraginez ziurrenik– eta berezirik egote horretan bere berezitasuna. Alderantziz ere, ondorioz: apartekoa izaten jarraitzeko, apartaturik egon behar duela uste izan da. Atxagak kontrakoa planteiatzen du eta, nire aburuz, planteiamendu berberaren erakusle dira Pott-eko aleak ere. Bertan ez dira falta Euskal Kultura, Euskal Musika, Euskal Literatura etab. 'aparteko, beraz apartatu' (eta aldrebes) ekuazio horren bidez ulertu nahiaren inguruan egindako hausnarketa eta zehaztapen kritikoak (*Pott Tropikala*-n, adibidez, «batzuek diotenez ez dago kanpora begiratu beharrik, ez baita gure nortasuna galdu behar. (...) hala zioen Urruzuno idazleak (apaiza noski): 'ez irten inoiz Euskal Herriatik, Euskal Herrikeri zerura (...)'. Amen. Eskerrak ia inork ere ez duela Urruzuno ezagutzen», 82. or.; «Euskal Musika eta baina (sic) mundukoa», 3. or.).

Siku eta agorra da T.S. Elioten Lur Eremu hura («Hemen ez dago urik arroka hutsa baizik / Arroka eta urik ez eta bide haretsua / (...) Izerdia lehor dago eta haretan daude oinak», *LE*: 147), bai eta testuok agerian utzitako gurea ere. Agorra da balio hutsal eta antzuetan erroturik dagoelako (*E*: 99)<sup>53</sup>:

egunero irakurtzen dugu etxebarneko pozaren

Hainbat oinarrien izena: Zorionak

yogurth fantastikoekin aurreratuko dugun diruagatik,

Zorionak zimurrik gabeko arropa horregatik,

Zorionak gure esku dauzkagun mila eltzeko misterios

Horiengatik, zorionak

Gure Lur Eremu hau agorra da baita ere horrelako balioetan oinarritzearen ondorioz zentzurik gabeko mundua eta bizimodua daukalako uzta bakar («panpina amerikanoak lehertzen zitzaizkien Vietnango umeei eskutan boom bang / Gure amak sabela erre zuen napalmez gautako dirrinaren amenazua ezin burutuz», *E*: 85)<sup>54</sup>; laburbilduz, «segurugilearen blagak bezanbat balio» duen bizitza (*E*: 89). Agortasun panorama hau lur eremuaren alor guztietara zabaltzen da, bere hizkuntza<sup>55</sup> (gomutatu honen hutsaltasunaz 2.3. azpiatalean esandakoaz) eta bere literatura eta estetika barne. Agian honen parodia lirateke *Etiopia*-ko ondoko lerrook (96. or.):

esan nezake zizare panpox bat sagarrean gorde da,

edota zenbat eraztun zilarrezko ene bihotzaren baitan,

edota neguaren haizera aditzera ematen da zoroki, oh yeah

53. Ikus, baita ere, makina bat adibideren artean, "Eguneroko bizitza", "37 galdera mugaz bestalde dudan kontakto bakarrari" (bestelakoen artean: «zuek patua aipatzen duzuenean, zertaz ari zarete zehazki? / Lan seguru baten abantailaz? Edo laranjarekin jaten denaz, / sinpleki? / Otoi egiterakoan, gogoan izaten al dituzue desertuko karabanak?», *P&H*: 38), "Poema polaroid sobre la muerte de John Lennon" («tu inicial de porcelana y oro te define sin palabras, refleja tus sentimientos, es como tú misma», *P&H*: 45).

54. Ikus poema honen moldaketa gazteleraz *P&H*-en («Fue cuando el invierno se iba aproximando / Y prometía muertes, no todas ellas naturales», 22. or.), bai eta goian aipatu gainontzeko poemak ere («detrás del terrible crimen subyacen las pasiones podridas y nauseabundas de un cerebro mezquino (...). Pero no todo son tristezas, porque por ejemplo Marta, a sus once años, ha dado luz a un precioso niño», 43. or.).

55. A. Swan *The Waste Land*-ez mintzo zaigula ere, bere hitzok *Etiopia*-ri ere egoki dakizkioke: «La enfermedad del lenguaje delata a la tribu, que, a su vez, también está enferma» (1982: 81).

Panorama sozial zein literario honek Pott garaiko errealitatea ekar diezaguke gogora. Zein errealitate? Frankismoaren osteko egoera ilun haren errealitatea, boterean oinarritutako Euskadi Ofizialarena (eta, gogoratu, botereekin kritikoak, antiautoritarioak ditugu Potteko partaide haiek), inongo aspirazio sozialik gabekoa:

Botereak, hemen, beste izen bat du, Euskadi Ofiziala deitzen da. (...) Politikoki, kontzeptu horren barnean sozialdemokratik sartuko lirateke, peto peto. Horiek ez dute amesten gizarte euskaldun klase gabea, eta aurrerakoia bizi-tzaren kontzepzioan. Bere alternatiba bakarra zeretan labur genezake: Madrilen bezala Cortes batzuk (...) baina gureak (*Pott bandaren berriemailea*, 6. or.).

Orduko testuek irudikatutako gure Lur Eremuaren zolan egoera sozio-politikoaren errealitatea ez ezik, kulturarena ere balegoke, zehazki eleizaren, euskaltzaletasun itsuaren eta probintzikeriaren barrutiak hesitutako 'euskal literatura' (?) harena («Denok anaiak gara, euskaraz izkribatzen den oro ona da, ondo dago. (...) ez gaude konforme. Bakoitzari berea: literaturan lehenengo gauza literatura egitea da», *Pott bandaren berriemailea*, 7. or.), hots «doktrinak eta apologiak, panfletoak eta pelukero disfrazatuak egindako nobelak» (*Pott Tropikala*, 5. or.) beste-



rik ematen ez zuen baratza antzu, agor eta anormal harena:

Kazeta hau literaturgintza normalaren dinamikan dago. Eta berau marjinala eta anormala bada Pello Kirtenen baratzan, ez da inola ere gure kulpa, edo gure errua, horixe bakarrik falta litzateke, ez jaunak, baratza da anormala eta ez gu (*Pott Tropikala*, 2. or.).

Garaiak eta bizitzak aurrera, Lur Eremuak bestelako zehaztapenik ere jasoko du J. Sarrionandiaren lanean. «Tiro hotsak eta harrizko isiltasuna»k inguratutako eremua ere bada (*MZ*: 36) non 'zentzunezko' arrazoieta oinarrituz «beste inkisizio bat» antolatu den (*HINMY*: 92) eta «behelaino zatiak ere preso hartzen dituzte»n (*GP*: 12); alegia, «kristalezko ziudadanoak zapaltzeko» ahaleginak egiten diren eremua (*M*: 123), «uso zuriz, banko biletz / Eta harma astunez ereindako» atsedanak eta «bake beltza»k euskarritutako eremua (*MZ*: 27). Atxurak eta ezpatak egin beharrean («hire herritarrek kateak / hauts ditzaten», *GP*: 82) kateak egiten dituzten esklabuek osatua da (*GP*: 82) eta, baita ere, goardia zibilengandik ihes zebilen mutilari atea itxi ondoren afarian «iraultzaren aldeko kantuak / tomate saltsaz zikinduriko» ezpanetan jartzen dituztenek (*MZ*: 30).

Harago joanda, aurpegi ezberdinak erakuts ditzakeen Lur Eremuan desolazioa kanpoan ez ezik, gizabanakoaren baitan ere agertuko da. Honek, hots suntsidura, desolazio eta finean degradazioaren barneraketaren ikuskera honek «Harea egotziz bihotzek / Harea erakarriz» (*E*: 77) edota «jenteen beitan elürra erorten» (*IAO*: 58)

bezalako metaforak betetzeko zola eskain diezagukeelakoan nago. Hau da, bere inguruko eremua bezain agorra, hutsala, degradatua da gizabanakoaren bizimodua, balio haietan oinarritzen delarik eta asperduran, automatismoan, inkomunikazioan euskarritzen delarik: telefonoak mutu daude (*P&H*: 36), kaletik automaten modura doan jendea badirudi ez dela –hemen– bizi (inon bizi bada, «mugaz bestaldeko erresuman» izango da: «Egunero kaletik ikusten dudan jende hau, han bizi al da?», *P&H*: 38). Ematen du, beraz, gizabanakoa ingurunea bezain mortu dagoela desolaziozko errealitate horri –Errege Arrantzalearen exenpluari jarraiki apika<sup>56</sup>– bizkarra emanda bizi denez gero (beraz, errealitate hori onartuz eta onartuz bere baitan ere). Baina berriro, bizi?, «¿Ciudad de los muertos? ¿O yo un muerto que vagabundea por la ciudad?» (Riechmann 1990: 171). T.S. Elioten erantzuna argia da:

Bizirik zegoen hura hilik dago orain  
Gu bizi ginenok hiltzen ari gara orain  
Pazientzia piska batekin (*LE*: 147).

Galdera baino gehiago «bizi (nolabait esateko noski)» zehaztapena<sup>57</sup> den honen haritik ekar dezagun gure artera Matalas agurearen ahotik entzun dugun metafora: «Ni sortü nintzan lekian gaia düzu beti eta *jenteen beitan elürra erorten*, eta ez da orhitzeaz kanpo besterik egiten» (*IAO*: 58; letra etzana nirea da). Elurra kanpotik barrura: neguak «lurra / Elur ahazkorrez estaltzen» duelarik (Eliot, *LE*: 127), lotan geratzen dira sustraiak eta, ahazturaren elurak loarazirik, lotan ere gizabanakoak, 'mugaz honaldeko' kaleetan zein «Londreseko

56. «Ur bazterrean eseri nintzen / Arrantzan, ene gibelean lautada idorra» (T.S. Eliot, *LE*: 151). Ik. honetaz Swan 1982: 51.

57. *Pott Tropikala*, 2. or.

Zubian zehar lerratzen» (*LE*: 130) ikusten ditugun gorputz fantasmalak,

hombres que prefieren la muerte en la vida (...), seres petrificados, cuerpos sin alma, estos hombres viven la senectud de un invierno que ellos mismos se han preocupado de fabricar a modo de caparazón infalible contra esas lluvias de primavera que sacan a las raíces de su letargo, que obligan, en suma, a ver la existencia en toda su crudeza. (Swan 1982: 42).

Hartara, gizabanakoak 'bizi beharretik' babestuko duen elurraren eskolaren azpian egunak ematea –atsedena den inolako ekintzarik ezaren jarrera– aukeratu duelako inplikaturaren bidez bete genezake goiko metafora (gogoan izan frantziar soldadoek ziberutarren erreboltaren buru zen Matalas urkatutakoan «bizimodu arruntaren katea ezagunetara itzuli» zela jende hura, «harrizko bakera», *IAO*: 49) bai eta, hainbaten, zerenak bere semeaz eskainitakoa ere («Zilborrik ez zuen, neuk bezala, gainerakoa aitarena zuen, larru azpiko elurra ere bai», *AEE*: 56). Mundu zentzugabe horretan gizakia ez da askea:

Eta gu libro gabiltza kaletan  
(...) ma-o-meno ezta?, gutxigora behera libro  
Esaten den bezala osasuna bada bedaio, arraio, eta  
[beste, aupa gaztiak etab.  
(*E*: 87).

Orduan, gizakia askea ez delarik, «haragian itsatsiak dituen / katea luze eta ilunekin» (*GP*: 113) apurtzeko saiakerarik egiten ez badu, heriotza onartzen du bizitzan bertan (Swan-en hitzak gureganatuz). Itotzen duen errealitatean lotan 'bizitzea', errautsen

artean zurbil geratzea onartzen delarik («Hirian geratu naiz, mundutik hain hurbil, libre naizela ustez, errautsetan zurbil», *N*: 91), hondamendia onartzen du bere baitan. Eta jarrera hau, autodestruktzio gogoaren muturre-raino eramanez desesperantzak bul-tzaturik, onarpenetik desiora igaro dai-teke: «Arreba, errautsa sinistaidan desioa dun nigan; / Suaren derrota oroz elikatzen naun» (*E*: 72).

Honek guztiak hemen proposaturiko irakurketaren hasierako puntura garat-matza: hauskortasunetik desolaziora, desolaziotik hauskortasunera. Egoera desolagarriak hauskor bihurtzen du gizabanakoa (Matalas bezala). Bizitza agor eta zentzurik gabea besterik eskaintzen ez duen lur eremuan –hareaz eta errautsez basitutako hirian, elurrak basamortu bilakaturiko mundu laberintiko eta hauskorrean– noraezean ibiltzeak, «munduaren ezinezkoak / eta bizitzaren / zentzu absurdoa» (*HINMY*: 84) entelegatu ezinik eta desolazioa inguruan eta norberaren baitan onaturik, hauskor bihurtzen gaitu. Lur eremua bezain mortu eta hautsirik<sup>58</sup> gaude ezen «lur eremuaren pusketak gara, pausu erratuak emanez gabiltza lur eremuan barrena kalkozko paperez egindako bihotzekin» (Iturralde 1983: 121).

### 3.3. Suntsidura gogotik deserrotzearen sentimendura; 'beste lurraldea'ren metaforatik erantzun eszeptikora

Bai kanpo bai barne egoera horrek sentipen ezberdinak sortaraziko ditu, jarrera ezberdinak eta, honela, metafora-sare ezberdinak. Nire ustez, eta

58. Oroit gorago (3.1. azpiatalaren hasieran) esandakoaz: T.S. Eliotena ez ezik gurea ere baden Lur Eremuan dena hautsirik dago, «un mundo roto, un espejo hecho pedazos y ninguna conclusión» (Swan 1982: 39).

*Etiopia* eta *Ziutatea* dauzkadalarik gogoan, egon badago batetik errebel- dia puntu bat, biolentzia puntu bat hizkuntzaren eta ironia zauritzailearen bidez (gogoratu 2.3. azpiatalean esandakoa), suntsidura gogo bat, zeinaren lekuko diren metaforak (errepikatu dudanez, hausterrea, errautsa, harri txintxarrak, hautsa... dena estaliz, «zubiak eta zuhaitz elektrokutatuak», «Lore gaseatuak» etab., *E*: 94). Azken finean suntsidurari suntsidura handia- goz erantzutea litzateke. Arestik ere bazioen:

Heuscal-Herriã

Situãtione chaoticico bat dago

chaos hãdiago batequĩ sũsitu behar duguna

(1983: 25).

Baieztapen horrek forma literarioa hartuko du *Etiopia*-ko orrialdeetan. Poetak suntsidura gogoaz erantzungo dio egoera desolaigarriari, era esplizitu- an inoiz:

Ezaren alaba garenoi etor hatzaigu, Etxahun;

(...) Ez haugu behar gorpuak zitroi urez igurtzitzeko,

Baizik eta desertuko ihizik eragitearren

Ziutaterantz

(*E*: 95).

‘Kanpoa’ri –ziutateari, lur eremuari– begira ez ezik, ‘barnea’ri begira ere da nagusi suntsidura gogo hau, autosun- tsitze gogo bihurtuz: basamortuan

kokatzen du bere burua poetak, Jau- naren aurka errebelatu zen Kain ba- kardadez inguratu zuen basamortuan.

Baina, aldi berean eta bestalde, «Kain apatrida bat zen jadanik, eta bizi guztirako» (*E*: 8). Alegia, eta gure irakurketara jauzi eginez, deskriba- tutako egoera honek deserrotzearen sentimendua dakarkio gizabanakoari, bertakoa ez delako sentimendua poetari («Ni ez naiz hemengoa»<sup>59</sup>) hondamendi eta degradazioaren lur eremu honetakoa, mundu mortu, gizarte zentzugabe, hiri itogarri honetakoa ezin sentitzean. Eta bertan arrotza sentitze honek «apatrida hori bezain hautsia eta hutsala eta edur lehena» (*E*: 71) sentiaraziko dio, aberrigabe (‘mental’ gaineratuko nuke, F. Pessoa gogoan: ik. Viqueira 1990<sup>3</sup>) bilakatuko, Minotauroak gaztigatzen digunez: «Ez diagu aberririk / aldean daramagunaz besterik» (*HINMY*: 79).

Ikuskera honen zolan jaio eta gauzatuko liranteke alde egitearen eta ‘beste lurraldea’ren metaforak. Lur Eremu honetatik, «zaborraren / zibili- zazitik eta espektakuloaren mekani- katik / hurrin» (*HINMY*: 139) alde egiteko gogo<sup>60</sup> jabetzen da gizaba- nakoaz. Bertakoak ezin sentituz, deserroturik, «Erroak lepoan hartuta itsas bazterrera doazen / zuhaitzen an-

59. Espetxean idatzitako liburu baten izenburu den esaldi metaforiko hau gartzelan egoteak suposatzen duenari buruzko asuntzioekin baino harago, norberarengandik urrun eta arrotza sentitzen den mundu baten murgilduta egoteari buruzkoekin betetzea ari naiz, hortaz, proposatzen.

60. *Etiopia*-ko basamortuaren metafora ere mundu honetatik aldentzearen ideia horren bidez bete genezake agian, poetaren desesperoia gogoan hartuz gero eta ondoko asuntzioak —Atxagaren ahotik heltzen zaizkigunak— jokoan jarri gero: Erdi Aroan «anakoretak edo eremitak mundutikan apartatu nahi zutenean (...) jotzen zuten desertura, eta han gordetzen ziren, (...) han pasatzen zuten bakardadea etab.» (1990: 14); «marjinatuak, gaixoak, desesperatuta bizi ziranak, anakoretak... uzten zuten kultura, hori da, kultibatuta zegoena, soloak, eta uzten zuten mundua» eta desertura erretiratzen ziren ezen «bere buruan behar zuten desertua» (1990: 15). Kasu honetan aldentze autodestruktiboaz hitz egingo nuke nik neuk, gorago iradokitakoari eutsiz, asfixia areagotu egiten baita basamortuan, dokumentaleko dorkoeki agitu legez: proba atomikoaren ondorioz orientazio sena galdurik «ez ziren animalia deslai batzuk baizik (...) irlaren barnealdeko deserturantz abiatu ziren itsasora zihoazelakoan. Asfixian bukatuko zen krontrako bidaia» hori (*E*: 39).

tzera. / Hurrin abiatzeko gogoa dugu»  
(*HINMY*: 139). Urrin, «lur berrien bila»:

Eta jarri zinen zeruari begira, eta esan zenidan:

Hegorik banu, ni ere saiaturko nintzateke

Lur berrien bila, jasoko nuke neure kanpamendua

(...) ahantz nadin betirako

Hiri honetako murraila eta jendeaz

(P&H: 12)

Metafora berberaren adierazle ditugu, baita ere, urrin abiatzea beste hiri edo portu batera iristeko gogoz zein itsasoan barrena «kristalezko irletara» heltzeko ametsaz (*E*: 93 eta *N*: 101). Kristalaren gaineko metafora hau, lehenago ikusitako kristalaren beste metafora haietatik urrin bera ere, amestutako lurralde irrealaren ideia-  
ren bidez bete daiteke hainbatan, *otherworld* fantastikoaren ideia-  
ren bidez irlandar mitologiaren zolan<sup>61</sup> (ik. Thompson 1955<sup>2</sup>, 3. lib., 28. or., F162.0.1.1), itsasoaren bestaldeko Tir na n-Og paradisu haren ideia-  
ren bidez (ik. "Ossian" poema *IGB*: 99-100), Miranderen «Sartaldeko ur-jauregi»  
eta «Gazteen Lurra» haren gogorape-  
naren bidez (non itsasoan barrenera-  
tutako Theresa «beti haur, beti urre,  
beti elur izanen zen (...), loreen eta  
kristalezko abardun sagar-ondoan  
artean», *Haur besoetakoa*, 99. or.).  
Ziurrenik, eta A. I. Moralesen azter-  
ketari jarraiki (1992: 131-133), "Poema  
polaroid sobre la muerte de John  
Lennon" poemak planteiaturiko bi  
ibilbideen elkargune den Thule ere  
amestutako beste lurralde irrealaren  
metafora-sarean kokatzerik badago.

Baina esploradore nekatuak ikus  
litzakeen kristalezko irla horiek «egun

berreskura ezin»ak dira eta ikusi,  
«txori imajinarioen multzokada lez  
pausatzen» ikus litzake (*E*: 93)<sup>62</sup>.  
Bestela esanda, edonolako utopiaren  
aurrean erantzun eszeptikoa da  
garaile. B. Atxaga betidanik agertu da  
sinesgogor gure mundu hau aldatzeko  
posibilitateaz. Gogora bedi ideia  
salbatzailerik ez dagoela eta gogora  
bitez *Etiopia*-ko ondoko hitzok ere:

herri honetako proiektutan murgilduko [ginateke]

Utopia ausartenak ere hain zikoitzak ez balira hemen;

(...) Ez, my love,

Tximinoek ez dute planeta konkistatuko zoritxarrez,

King Kong ez da iritsiko ziutate honetara

(*E*: 89-90).

lurretako idazlearengan ere gauzak  
aldatzeko posibilitateaz eszeptizismoa  
era argiagoan erretuz joan da  
urteekin: «ametsak erein ditugu /  
ametsak biltzeko» (*GP*: 76); «Bart tiro  
hotsak entzun nituen, baina egun-  
sentian / banderak ohizko lekuan  
zeuden» (*HINMY*: 62). Bada eszepti-  
zismo honek aldentzearen eta 'beste  
lurraldea'ren metaforak ere lausotzen  
ditu: desiratzen duguna ezin inon  
aurkituz bizi gara («Ene traxe ederrak  
hondartzan erreaz, aide azulerantza  
irten nintzen hegaz, joan nintzen  
itsasoz, lehorrez aukeraz, inon ene  
desirak ezin eridenaz, finean akiturik  
etsi naiz bidaiaz», *N*: 91), bilatzen  
dugun zerbait hobeago horren portura  
ezin iritsiz («Hala esan zaidan (...) / ba  
direla portua sekulan arkitzen ez duten  
untziak itxasoan», *P&H*: 38), F.  
Pessoak ere bazioskunez («Hoje o  
céu é pesado como a ideia de nunca  
chegar a um / porto...», 1990<sup>3</sup>: 50).  
Amesten dugun bizimodu edota

61. Kristalezko irlen metaforarekin batera, beirazko xaluparena ere (*IGB*: 99) bete genezake irlandar mitologiaren zolan *journey to otherworld* ideia-  
ren bidez (ik. Thompson 1955<sup>2</sup>, 3. lib., 27. or., F157.1).

62. Oraingoan, estraineko aldiz, *Etiopia*-ren 3. argitalpenari jarraiki natzaiola zehaztea komenigarria  
zait, poema hori (zer dela eta erabakitzea gera bedi irakurle bakoitzaren esku) ez baita 1. argitalpenean  
agertzen.

lurralde hobeagoa aurkitzerik ez dugu (halakoren bila «izuen gordelekuetan barrena» abiatu eta «sukarri urdinarre tipiak / eta oihan beltzetako xokotan / usteltzen diren xoxo habiak soilik / nizkizun bidaiari eriden», *IGB*: 68) ezen, izan ere, halakorik ez baita: ez dago «oinazearen errekak zeharkatzen ez duen» aberririk (*GP*: 62), amesten dugun beste herrialderik ez, iheslekurik eta pausalekurik ez, irlarik ez dago. Gogora bedi *Etiopia* («Irlaren batetara joanen ginatete, bestalde, / Inon irlarik balego», *E*: 89) eta gogora baita *Poemas & híbridos* ere:

Tximeleta haiek hegala egiten  
 itsasoaren ixiltasunerantz;  
 Ez joan, ez joan, itsaso horretan  
 pausalekurik ez da  
 Ez dago irlarik  
 Ez dago harkaitzik

(*P&H*: 76).

Bi hitzetan, paradisuak ez da, J. Sarrionandiak bere azken poema liburuan argi dioenez:

Honezkero mundu guziak daki paradisuak  
 ez dela. Inor ez doa  
 inora, Thule esate baterako izen hutsa da,  
 turistak ere ez doaz Thulera.

(*HINMY*: 188).

Alde eginda ere, bazioen Cavafisek, «Ez duzu lurralde berririk aurkituko, ez itsaso berririk. / Ziudade honek jarraituko zaitu»<sup>63</sup> eta hiria gurekin doala (gurekin desolazioa, gure bizitzaren hondakinak eta miseriak, gure hutsaltasun eta hauskortasuna: «Batzutan inola ere ezin da ihes egin / norbera den errauts pilotik», *HINMY*: 54), ez da hori guk amestutakoa izango, ez gara bertakoak izango (unibertsokoak ere zein punturarte gara haizeak errez eraman dezakeen errautsa garelarik...). Gogoan daramagun herrialdea

beti izango delarik inguratzen gaituena baino perfektuagoa, «ederragoa eta duintsuagoa», amesten dugun mundu hori «aide legez eta hutsune gisa besterik» ez da gorpuzten, J. Sarrionandiak Joseba Irazuri zuzendu lerroetan irakurri ahal dugunez (*EGGB*: 86). Finean deserrotzearen gaiarekin eta bere gaineko metaforekin egin dugu topo berriro: itzuliz gero arrotzak izango gara («Etxera itzuli nintzenean, / Berriak ziren atearen zura / eta zarraila ere», *MZ*: 84), «gure sorlekua ez ezik, geu ere aldatuko garelako» (*HINMY*: 37); geratuz gero, arrotzak ere, «osasunik gabeko mundu honetako»ak ezin sentitzean (*EGGB*: 9); eta deserrotzeak bultzaturik beste zerbait hobeagoren bila, nork bere baitaren bila (*EGGB*: 10) abiatuta ere izango gara arrotzak, gure baitan daramagun herrialdea gorpuztu ezina baita. Ondorioz

Ez gaituk bertakoak  
 inon izanen,  
 ez hangoak, ez hemengoak, gure eginak alferrik  
 galduko dituk nahinon,  
 (...) Herbestean biziko gaituk edonon  
 (*HINMY*: 79-80).

### 3.4. Bidaiaren metafora, basoaren metafora eta parkearena

Orduan zer geratzen zaigu? Gure eginak alferrik galduko badira nahinon, nahiko genukeen 'beste mundu bat' lortzea ezinezkoa bada eta ezinezkoa nonahi, ideia salbatzailerik ez badago –hasierako puntura arribatuz– planteiamendu zirkular honetatik ateratzerik ez dagoela, etsipena baino ez zaigula geratzen eta hau digutela idazleek planteiatzen pentsa genezake. Baina ezezkoan nago, idazleak harago doazelakoan eta irakurleok eurekin. *Etiopia*-n bertan irakur genezakeenez,

63. J. Sarrionandiaren itzulpena, 1985: 203; ik. bestela Cavafis 1994<sup>2</sup>: 62.

edozein eta edozelako utopiaren ezinezkotasunaren aurrean negarretan geratzerik ez dago:

ez zaitez farregarria izan,  
ez dezazula nigar egin adolezente hordiaren gisa  
une deslai honetan kalizea eta marmorezko mahaia  
zure hegal bakarrak bihurtu direnean,  
eguzkirako izan behar omen zuen bidaia  
zubi nekatuen azpitan amaitu delako (73. or.).

Ezinezkotasun horretaz ohartu eta ezinezkotasun hori onartu egin behar da, eta –hemen goaz harago– horrez guztiaz konsziente izanda oso aurrera jarraitu. Hauxe dugu, ene iritiz, bai idazle bataren bai bestearen testuek seinalatzen duten bidea –metafora bat erabiliz–, *Hnuy illa nyha majah yahoo*-ren orrialdeek era are argiago baten markatzen dutena: soluziorik ez dagoela jakin arren, eta jakinaren gainean, aurrera egitea (eta aurrera egin dezagun gonbitea egitea) soluziorik egongo bailitzan; hots, aurrera egitea bizitzan, nork bere baitaren bila eta haragian itsatsirik ditugun katea luze eta ilunak (*GP*: 113) apurtzen saiatuz, eta aurrera gizabanako askeen herri justu baten aldeko apustuan ere, horretan erresistituz, saiatuz bihar banderak ohiko lekuan egongo direla jakinda ere (*HINMY*: 62), saiatze horretan baitago «bizitzari zentzu pixka bat ematen dion» giza duintasuna<sup>64</sup>. Alegia, eta gure metaforetara itzuliz, lortu nahi dugunaren portura arribatu ezinean geratuko bagara ere (eta gogoan daukagularik hau, bai eta itzuleraren ezinezkotasuna ere), abiatzea da garrantzia duena eta honetaz mintzo zaizkigu testuok (J. Sarrionandiarenak ahots errimeagoz apika). Par-

titzea beharrezkoa da, nabigatzea porturantz, itsasoa zeharkatzea zein basamortua, behiak egin legez<sup>65</sup>, ezen horretan dago bizitzaren zentzua, bidaiaz. Izan ere, «Bidaia bizitzaren metaforatzat har daiteke» (*HINMY*: 48).

Nolanahi ere den, ez bedi bizitza metafora aktibo baten bidez kontzeptualizatzeko hau ez kasualitatearen ez eta estetizismoaren fruitutzat jo. Soluzioez eta lorpenez jarrera eszeptikoa nagusi bada ere, honek ez dakar berarekin inolako jarrera pasiboren hautapenik, kontrakoa baizik (hemendik ez kasualitatearena). Ez gaude etsipenezko jarrera baten aitzinean, ez da desesperantza onarpena testuek begien aurrean jartzen diguten bidea –bereziki lurretako idazlearenak–, hortik ilkitzearena eta loalditik ateratzearena baizik. «'Kalterik tipiena hautatu behar da bizitzan' esan eta han [dortoken irlan] geratzea erabaki»z gero (*N*: 24), etsipenaren bidea hautatuz gero, ez bizitzearena hautatzen dugu (ezin ahantz bide hori hautatu zuten "Arima naufrago bakartiak" heriotzaren zain geratu zirela azken buruan: euren mezuak zeramatzaten botilen «alboan pausatzen ziren albatro mutuek soilik igar zezaketen barruko paper puska haietan ez zegoela deusere izkiriaturik», *N*: 24). Bizitzen jarraituko badugu, ezinbesteko zaigu itsasoratzea behin eta berriro bada ere, H. Melvilleren marinela bezala egitea: «Marinelek, ekaitzak irla mortu batetara jaurti dituenean, itsas galeraren hondakinez berregiten dute txalupa eta ur berberetara sartzen dira berriro» (*N*: 17)<sup>66</sup>. Biziko bagara, ezin

64. «Errauts eta ahanzturazko amaieraren aurrean duintasuna da, giza-duintasuna, bizitzari zentzu pixka bat ematen diona» (*IAO*-ren atzeko azalean).

65. Begibistan denez, basamortuaren metafora honi *Etiopia*-ko basamortu harekiko ezberdin deritzot.

66. Narrazio horren sarreran aipu hori eskaintzea testu-estrategiatzat joko nuke, ezen aipu hori jarri izanak are argiago markatzen du *Las Encantadas*-eko marinelek eta narraziokoek aukeratu bideen

hirian errautsetan zurbil geratu, ez elurraren oskolaren azpian lotan: T.S. Elioten esanetan, «es mejor hacer el mal que no hacer nada: al menos, existimos» (Swan-ek jasoa, 1982: 45).

Bizitza, azken batean, aurrera egitean dago (beti bilatzen ibiltzean, ibiliaz bidaiatzean: marinela gu ere bagara, gu ere «goizero –marinel zaharra bezala– jakintsuago eta tristeago» jaikitzen<sup>67</sup>), nora iritsiko garen edota iritsiko ote garen ez dakigula ere aurrera egitean, aurrera bilatzen duguna aurkituko ez badugu ere, ezer lortuko ez badugu ere:

Nora goazen jakinda joanen gara? Nora joanen  
ginatekeen

jakinda geratuko gara? Nora goazen jakin gabe  
joanen gara?

Nora joanen ginategen bildurrez  
geratuko gara?

(...)

Baina goazen nahi baduzu, zabaldu belak, jaso aingurak,  
abia gaitezen atako bandaruntz.

Ortzemugen handikaldean irlak eta derrotak  
bilduko ditugu,

balea zuriaren kontra ekinen dugu, irabazi ezin arren  
akaberara arte burrukan.

Ikas ditzagun marinelen kantak, asma ditzagun  
marinelek kantatzen ez dituzten kantak.  
(*HINMY*: 139-140).

Honela deskontsolamenduaz hitz egin bagenezake ere (ez baitago ezer lortuko dugulako kontsolamendurik, jakin baitakigu derrotak ditugula bilduko eta guk edozein «balea zuri» akabatu baino lehen berak gaituela akabatuko, Moby Dickek Ahab kapitaina akabatu zuen bezala), beraren funtsa jarrera aktibo baten dagoela azpimarratu beharra dago (derrotak bilduko ditugula jakin arren eta jakinda,

«goazen»; Ahab kapitaina Moby Dickek aurka behin eta berriro entseiatu zen balea hiltzen lortu ez bazuen ere, entseia gaitezen gu ere). Hortaz, hobe genuke *deskontsolamendu aktiboa*-z hitz egin, J. Riechmannen eleez jabetuz:

«La certeza de que no hay salvación es una forma de salvación, es incluso la salvación. A partir de ahí da igual organizar la propia vida que construir una filosofía de la historia. Lo insoluble como solución, la única salida». (E. M. Cioran).

¿Entonces? Acatar lúcidamente la evidencia de que no hay ninguna salvación, y negarse con entereza a aceptar que no la haya. Una actitud que se resuelve en desconsuelo activo. (1990: 106).

Aurrera egitea ez da, beraz, itsuturik eta edozelan egitea aurrera. Gorago ere esan bezala, utopia salbatzailerik ez dagoela duintasunez onartuz soilik egin daiteke aurrera bizitzan eta, aldi berean, soilik halakorik ezinezkoa dela ez onartzeak urrunduko gaitu etsipen pasibotik eta aurrerantz bultzatuko, aurrerantz bidean egin akatsak ere onartuz («Onak eta / okerrak naharo egin ditugu», *GP*: 76), aurrerantz bizitzaren bidean jarraitzeko arnasa eta indar berriak ematen dizkiguten gauzen laguntzaz. Hementxe prezeski koka eta bete genitzake, batik bat B. Atxagaren testuei dagokienez, natura eta bere inguruan jaiotako metaforak. Soluzio ezaren aitzinean, bizitzan aurrera jarraitze horretan naturak nolabaiteko kontsolamendua (fisikoa bederen) eskaintzeaz batera daukan lasaitze balioa –balio terapeutikoa– legoke, nik uste, basoa bezalako metaforen zolan: basoan ibiliaz arnasa

arteko ezberdintasuna, are argiago erakusten okerreko (zilarrezko?) bidean barrera abiatu direla 'arima naufragoa bakartiak'.

67. Ikus ideia berbera *GP*-ko "Misterio fiskala" eta "vii. galdera" poemetan.

berria hartu, basoa berdatzen ikusiz (ik. "Bihotz, antzineko bihotz", *P&H*: 70-72) bihotza arindu (eta, parentesi artean bada ere, naturaren ziklotasunak berak ere ez ote digun sentsazio lasaigarria ekartzen itaun geniezaioke geure buruari), lasaitu belardi baten etzanez (*Zeruak* zein *Zeru horiek*-eko andrea ere belardi batera doa Restopera iritsi bezain laister) edota indarrak hartu parke eta zuhaitzei so eginez, «bizitzaz memorandum bat» idaztera jarri den E. Werfell bezala:

leihoak arindu egiten zuen salaren bakardadea, zeren huriko parke nagusiaren zati bat ikusi ahal baitzen handik (...). Idaztera makurtu aurretik, *emaidazue indarra zuok egunero argi pusketa bat jasotzen duzuenok*, leihora altxa zituen begiak, zuhaitzerantz (*O*: 69-70)<sup>68</sup>.

Baina ohar gaitezen natura honen nolakotasunaz edota, oharra gure gaiaren esparruan txertatuz, metafora hauek jokoan jarritako inplikazioen bidez isladatzen duten ikuskeraz: parkearen metaforak, adibidez, azken buruan orekaren eta kulturaren inguruko inplikazioak dakartza berarekin, 'parkea gizakiak modu orekatu baten sortu eta zaindutako natura-espazioa da', 'zuhaitzez eta landarez hornitutako barrutia, kultura giza-taldearen aisiarako', 'gizakiaren adimen eta lanaren emaitza, gizakiak disfruta dezan' zein honelako beste hamaika asuntzio jokoan jartzea litekeena da eta. Alegia, ez da natura titanikoa idaz-

leak maite duena, antiheroikoa eta orekatua den natura baizik eta, horregegatik, parke eta lorategiekin, Restopetako belardiekin egingo dugu topo asteasuarraren azken lanak eskuartean hartzean. Gorago aipatutakoez ez ezik, gomuta gaitezen "Método para escribir" delakoaz ere, bai eta bertako ondorengo eleez:

De acuerdo, ya vamos controlando nuestra respiración y concentrándonos en lo que la naturaleza, tan consoladora, tan ayudadora de los que necesitan salir de sí mismos, nos ofrece junto al otro lado de nuestra ventana. Observemos con atención: ¿qué se ve desde la ventana? (14. or.).

Erantzuna: parkea. Honela, natura basatitik adimenak orekaz sortutako natura ordenatura, basoaren metaforatik parkearen metaforara, metaforek seinalatu urrats honek B. Atxagaren ikuskerara gertura gaitzakeelakoan nago: inteligentzia, kultura eta orekaren aldeko apustua muturreko –gehiegikeria– jarreraren aurrean. Izan ere, Bihotzak «zoritxarrez»<sup>69</sup> egiten du amets muturrekin (ik. "Bizitzak", *P&H*: 16). Hau da, bizitzak muga latzetan baino etsitzen ez duelarik eta ertzetara jotzen duelarik, oreka beharrezkoa da, beharrezkoa bizitza-muturrak adimenaren eta kulturaren bidez orekatu, beharrezkoa –B. Atxagaren beraren hitzekin bukatzeko– «inteligentzia eta kultura mundua den basatikeria menderatzeko»<sup>70</sup>.

68. Letra etzana jatorrizko testuarena berarena da.

69. Poemaren muina «zoritxarrez» horretan legokeela aintzat hartzeak A.I. Moralesen azterketaren puntu batetik aldentzera narama: Desertua eta Oihana kulturaren aurreko espazio primordialak direla argudiatuz, «aldi zaharron nostalgia» eta «hastapeneko une (...) harekiko grina eta joera» isladatzen dutela defendatzen du berak (1992: 128-129); nik neuk, ordea, nahiago dut Desertua zein Oihana bezalako muturrak zoritxarrez desiratze hori orekaren aldeko jarreraren zolan irakurri. Arrazoi berberegatik irakurketa hau ez dator bat J. Kortazarrek puntu honen inguruan eta «amar los confines se convierte en una búsqueda obsesiva en el poeta» iritzian oinarrituz eskaintzen duenarekin (1994: 68).

70. Autorearen komunikazio pertsonala.



#### 4. Ondorio gisa

B. Atxaga eta J. Sarrionandiaren metaforetan barreneratze honek metaforaren teoria tradizionalen bazterketa (euren irizpide kolokatiak eta testuen irakurketa aberasteko laguntza eskasa direla kari) izan du bai abiapuntu bai arribalekuetarik bat. Bestela esanda, komunikazio inplizituaren barruan eta Harrera-Teoriaren magalean eraiki dugun metaforaren kontzeptualizazioaren eskutik testuetara –eta testuen atzean dauden idazleengana– egindako hurbilpen honek bi ondorio osagarrietara eramán gaitu. Agerian geratu da, batetik, metaforetan (testuaren gainontzeko guneetan baino era hagitzez argiago baten) idazleen horizontea eta teoria poetikoa –bai eta honen bilakera ere– hauteman dezakegula. Baina hauteman dezakegu baldin eta metafora hutsune legez eta testu-estrategia legez ulertzen badugu (Atxagaren lan berriagoetan argiro). Honela, honek guztiak nabarmendu egin du, aldi berean, bai kontzeptualizazio tradizionalen eznahikotasuna, bai hemen proposatu ulerkeraren baliogarritasuna literatur kritikarako lanabes bezala. Bestetik, lanabes horren laguntzaz autoreek literatur sorketaz duten planteiamendura gerturatu gara lehen urrats baten, metaforak testuotan jokatuturiko papera planteiamendu horretan txertatzen delarik eta txertatzen dela agertuz; bigarren urratsean, testuen zein metaforen iturburu izanik euren atzean dauden idazleen horizonteetara hurbildu gaituzte metaforek.

Laburbilduz, lehen urrats hark metaforok testuan apaingarritasunaz harago doan papera jokatzen dutela azpimarratzera narama, euren teoria literarioarekiko loturan jaiotako papera jasotzen dutela defendatzera: batetik Errealitate eta Egia bakarraren

aurrean poesian ere aldarrikatzen den erlatibismoarekin lotutako papera; bestetik, Pott garaiko lanetan zein oraintsukoetan azaldutako hizkuntzaren higaduraren arazoarekin lotutakoa; eta, azkenik, sentimentalismoaren arazoari ihardesten diona. Lehen paperari dagokionean, metafora «errealitatearen zirrikituetan sartzeko» libreagoa den komunikazio modu aberatsa daukagu eta, hortaz, metaforaren erabilpenak bat egiten du errealitatearen aldakortasunaren eta erlatibismoaren inguruko planteiamendurekin, bat errealitatearen bestaldeak eta gauza zein egoeren ezagumen berriak agertzeko poetaren eginbidearekin (*NENH*: 189). Halaxe da komunikazio metaforikoak –literalak ez bezala– parada eskaintzen dielako idazleei errealitateaz bestelako asuntzioak jokoan jarriz (ohiko asuntzio ‘ofizial’ak ez direnak, norberaren esperientziaren galbahetik iragandakoak) bestelako inplikazioak komunikatzeko, finean bestelako errealitate bat isladatzeko. Indeterminazio-mekanismoa bat izanik testuan hutsuneak eratzen dituzten metaforak ezinbestean bete behar dira, eta bete, norberaren esperientzia-horizontean metatutako asuntzioak aktibatuz eratorritako inplikazioen bidez. Hartara, metaforok «poesia»ren ulerkuntza (*NENH*: 190) bermatzera datoz, poetak (irakurleok aktualizazioan egingo dugun bezala) errealitateaz daukan esperientzia besterik ezin isladatzean egiten duen errealitatearen sorkuntza horretan laguntzera. Sorkuntza honetan ez ezik –eta goian aipatu bigarren paperari lotuz–, komunikazio idor eta pobrea besterik posibilitatzen ez duen hizkuntza estereotipatuaren antzutasunaren arazoan ere laguntzera datoz metaforok, zeren komunikatzeko gaitasuna berreskuratzea eta komunikazioa aberastea erdiesten baitute, osatzen

duten hutsunea betetzeko informazio osagarria jokoan jartzea posible egiten dutelako. Arazo horren eskutik B. Atxagak –batik bat *Etiopia*-n– ibilitako esperimendazioaren eta hizkuntzaren tratamendu ironikoaren bidera hel gaitzke, eta hortik metaforek testu horretan jokaturako paperera: metaforaren mekanismoa da *gag* zauritzaile haien azpian dagoena, metafora du idazleak makulu inplikazioen transmisioari esker biolentzia sarrarazteko lerroartera, metafora egoera bezain itogarria den hizkuntza dogmatikotik apartatzeko bide. Izan ere, bizitza bezain higaturik dagoen hizkuntza horren bidez ezer gutxi komunika daitekeelarik, mezua esandakoan baino gehiago esandakotik at –asmoan eta inplikaturan– komunikatu beharrari ezin hobe erantzuten dio metaforak. Testuotako metaforen papera ez da, haatik, hor agortzen. Ezin ahantz sentimentalismoaren arriskuan erortzeke metaforok afektibitateari ireki atea. Metaforen bidez emandako afektibitatearen transmisioak testuak hoztasunetik urruntzeaz batera, sentimentalismotik ere urruntzen ditu, emozio eta sentsazioak jokoan egon badaudelako eta, egon ere, ez ‘esaten dena’ren maila esplizituan –idazleek arbuaiaturiko sentimentalismoan gertatu legez–, baizik eta inplizituan, hots norberak bere sentsazio eta emozioak jokoan jarri ‘esaten dena’tik eratorritakoan eta honen bidez egindako betetzean.

Metafora komunikazio-fenomeno bezala ulertuz (ulertuz, beraz, pragmatikaren ikuspuntutik) eta komunikazioa den literatur testuan jokatzeko duen papera Harrera-Teoriaren parametroen bidez planteiatuz heldu gara honaino. Baita harago ere: ulerkera honek (tradizionalek ez bezala) argitu egin du B. Atxagaren testu narratiboe-

tan –bereziki azkenengoetan– metaforek jasotako erabilpena. Izan ere, testu-estrategia edota seinale argia da metafora *Zeruak*-en zein *Zeru horiek*-en (bai eta lehenagotik ezagutzen genuen “Klaus Hanhn” narrazioan ere, gaztelerazko bertsioan ez kasualitatez gardenkiago gainera), hots, irakurketan gidatuko gaituen haria, testua albaindu egiten duena. Lanotan metaforak jasotako paper honek berebiziko garrantzia dauka testuotatik at ere, atzean dagoen idazlearen teoria literaria baikaramatza, haren indartzeaz eta izandako bilakaeraz argia emanez: metafora ez da baliapide erretoriko gisa erabili, baizik eta testuaren garapenarekin lotutako estrategia legez, modu logiko baten. Eta honek, alegia hizkuntzaren tratamendu ironikotik jaiotako metafora oso indeterminatu haieetatik apartatu eta idazketa-lanabes gisa funtzionatzen duten metaforen bidean barrena abiatu izanak, argi uzten digu Asteasuko idazlea banguardia eta esperimendazioaren esparrutik atera dela, hizkera poetiko estereotipatuarekin apurtu nahia gainditu eta logikotasuna eta argitasuna euskarri dituen literatur-sorketan barreneratzeko.

Begibistakoa denez ez gaude, ez idazle batoren ez bestearen kasuan (eta B. Atxagaren azken lanek are nabarmenagotzen dutenez), metaforaren erabilpen tradizionalaren aitzinean. Hortaz, idazlearen metaforek jokaturiko papera –euren teoria literarioaren eta honen garapenaren oihartzun zuzena dakarkiguna– ezin entelega dezakegu metafora estiloaren desbideraketa zein apaindura soiltzat ulertuz gero, ez eta gainerako zentzu tradizionaletan ulertuz gero ere. Horrexegatik nioen metaforaren ulerkera tradizionalen bazterketa azterketa honen abiapuntu baina baita arribaleku ere badela eta,

horrexegatik, azterketa endotestual honi esker aldi berean hemen proposatutako ulerkerak indarra hartzen duela.

Gatozen bigarren urratsera. Metaforen betetzeak hauskortasunaren eta hondamendiaren inguruko metaforetatik, basoa eta parkearen metaforetara eraman gaitu, autoreen horizonte eta ikuskerara hurbilduz (hortik lan honetan metafora hauei eskainitako garrantzia). Azterketak agertu duenez, ibilera horretan batzuetan paraleloak suertatu dira bi idazleen bideak; bestetan, ostera, elkarrengandik banatzen dira.

Ibilbideak bai gizabanakoarekin bai bera 'bizi' den munduarekin lotutako kristala, elurra, errautsa eta harearen metaforetan izan du hasiera, non bide paraleloak jarraitzen dituzten B. Atxagaren hasierako poesia-lanak eta J. Sarrionandiarenak. Metafora haueetatik erator daitezkeen inplikazioak anitzak izanik, hainbat ideien bidez bete daitezke haiek eraturiko hutsuneak. Lan honetan hauskortasunaren eta hondamendiaren ideien bidezko betetzea aurkeztu dut. Laburbilduz, gizabanakoa hauskorra da mundua sostenga zezakeen eta bizitzaren zentzu eta norabideaz argia eman ziezaiokeen idea salbatzailerik ezean prekariora bihurtzen den munduan noraezean dabilelarik (bizitzaren zentzua ulertu ezinik noraezean basamortuan, itsasoan, elurra basamortu bilakatutako eremuan). Hauskorra da ere beraren inguruan jira-biraka dabilen eta egunen batean zapaldu eta hautsi egingo duen Dantzariaren esku dagoelako; hauskorra, halaber, beraren bizitza bezain apurkorra delako bizitza horren sostengu den gauza oro. Azkenez, hauskorra da, orobat, T.S. Eliotek irudikaturiko «sartaldearen egungo hondamendia» zabaldu egin

delako, desolazioaren erdian bizi delako, hareaz, errautsez, hautsez eta elurrez estalduriko eremu mortuan errari: Lur Eremuaren zati bat baino ez da, uzta bakar balio hutsal eta antzuetan errotutako bizimodu higatua daukan Lur Eremuaren zati bat. Autore bakoitzarengan zehaztaperen ezberdina jasotzen dituen desolaziozko Lur Eremu honetan, harea eta errauts artean eta haragian itsatsiak dituen kateekin (*GP*: 113) bizitzea onartzen duelarik, hondamendia onartzen du bere baitan (bere baitan honela harea, errautsa, elurra...). Onartzen du, orduan, Lur Eremuaren zati bat izatea eta bera bezain mortu egotea, «Londreseko Zubian zehar lerratzen» ziren arimarik gabeko gorputz haiek bezala.

Egoera honek hainbat sentipen ezberdin sortaraziko du eta hainbat metafora ezberdinen aktualizaziorako bideak irekiko. *Etiopia*-k suntsidurari ateak zabaltzen dizkiolakoan nago, metaforen bidez ere (harea, harri txintxarrak, hausterrea, errautsa, hautsa...) komunikatzen zaigun suntsidura gogoari (poetak bere buruaz ere agertuko lukeena, nire ustez). Baina, bestalde, egoera honek deserrotzearen sentipena ere badakar berarekin, lur eremu zentzugabe eta itogarri honetakoa ezin sentitzea, eta honek alde egitearen eta 'beste lurraldea'ren metaforak: lur berrien bila abiatzea, beste hiri bat aurkitu nahian partitza, beste portu edo irla batzuetara –kristalezkoetara...– risteko gogoz itsasoa zeharkatzea, etab. (Oroit *Etiopia*-ko poetak ere mundutik apartatu nahi zuten anakoreten eta desesperatuta bizi zirenen basamortuan kokatu zuela bere burua).

Alabaina, eta urteak aurrera lurretako idazlearengan ere gero eta argia-

go, edozelako utopiaz eszeptizismoa da garaile. Egoera aldatzerik ez dago (King Kong ez baita iritsiko ziutate honetara), ezta irlarik ere ez. Bilatzen dugun zerbait hobeago horren portura ezin iritsiz bizi gara, «porturik balitz ere» (*HINMY*: 132). Gainera, alde eginda ere gurekin doa hiria eta gure bizitzaren hondakinak, hauskortasuna eta hutsaltasuna; alde eginda ere, amesten dugun herrialdea beti «ederragoa eta duintsuagoa» izango denez, ez gara bertakoak sentituko, ezta edonongoak ere.

Beraz, hasierako puntura itzuli garelarik (munduari eta gizabanakoaren bizitzari esperantzarik ekar diezaiokeen edonolako ideia salbatzailean sinestezintasuna, labur esanda, edonolako utopia edota paradasuren ukapena), ibilbide borobil honetatik ateratzerik ez dagoela irudi lekiguke. Baina testuek harago garamatzate eta, eraman ere, usu metaforen eskutik: Riechmannen eleak nireganatuz deskontsolamendu aktiboa deitu izan dudanera. Hots, *Etiopia*-n bertan gaztigatzen zitzaigunez, utopien ezinezkotasunaren aurrean negarretan geratzerik –adoleszente hordiaren gisa– ez dago. Etsipenari eta bere onarpenetik heldutako loaldiari bizkarrara ematea batetik eta, bestetik, utopiaren ezinezkotasunaz konsziente izatea elkarrekin ezkontzean datza jarrera hau; alegia, eta gure metaforretara etorritz, lortu nahi dugunaren portura arribatu ezinean geratuko bagara ere, eta geratuko garela jakinda, partitzearen aldeko jarrera, nabigatzea porturik ez daukagula baina porturik baikeneukan porturantz, bidaiatzea «arraun apurtuekin» bada ere (ik. *HINMY*: 132), aurrera egitea bizitzan basamortua zein itsasoa zeharkatuz. Metafora hauen betetze-zola bezala hemen proposatu dudana 'deskontso-

lamendu aktiboa'ren ikuskera hau bi idazleengan aurki badezakegu ere, J. Sarrionandiarengan –eta bereziki *Hnuy illa nyha majah yahoo*-ren lerroetan zehar– nabarmenagoa delakoan nago, Atxagarengan bizitzan aurrera egite horretan makulutzat oreka, inteligentzia eta kultura hartzearen aldeko apustua nabarmenagoa den bezala. Berriro ere metaforek idazlearengana hurbiltzen gaituzte: basoaren metaforaren bidez eta –batik bat azken lanetan– parkearenaren bidez, mundua den basatikeriaren erdian naturak eskainitako kontsolamenduaren inguruko inplikazioak helarazten zaizkigu (baita afektibitatearen mailakoak ere: sentsazio lasaigarria...), naturak aurrera jarraitzeko arnasa eta indar berria baitakarkio gizakiari, Asteasuko idazleari, idazteko metodoa azaltzen zigun narratzaileari, E. Werfelli. Eta hemen natura titaniko eta basatitik jaioko liritekeen metaforen aurrean ez gaudela azpimarratu beharrean nago, ez baitu idazleak Oihan basatia maite, zoritxarrez egiten baitu bihotzak amets muturrekin eta zoritxarrez bizitzak amets muga latzekin (Oihanarekin, Desertuarekin). Adimenak orekaz sortutako natura ordenatu eta antiheroikoaren aurrean jartzen gaituzten metaforak dira, B. Atxagaren azken testuak eskuartean aise konturatuko garenez: belarditxoak, parkea, lorategia, hots, orekaren, adimenaren eta kulturaren inguruko inplikazioekin betetzen diren metaforak. Ondorio argia, bizitzak eta mundu basatiak muturretara jotzen dutelarik, kultura eta adimenaren beharra oreka erdiesteko.

Lan honen bukaerara heldu bagara ere, ez dugu B. Atxaga eta J. Sarrionandiaren metaforetan barrenako bidaia bukatu. Metaforen betetze honek ez du inongo hutsunerik beteta

utzi eta beti posible den edozein irakurleren bestelako irakurketa batek ere ez du ezer itxita utziko. Hartara, zabalik geratzen da atea liburuak

irekitzera eta testuetan barrena bidaiatzera gonbidatuz ezen, izan ere, «liburu hertsiaik atautak dira, liburu irekiaik itsasuntziak» (*HINMY*: 140).

### Laburdurak (lehen iturriak)

Atxagaren lanak:

Z: *Ziutateaz*, Lur, Donostia, 1986<sup>2</sup> [1go arg.:1976].

E: *Etiopia*, Erein, Donostia, 1988<sup>3</sup> [1go arg.:1978].

BA: *Bi anai*, Erein, Donostia, 1990<sup>5</sup> [1go arg.:1985; gazt. itz.: *Dos hermanos*, Ollero & Ramos, Madrid, 1995].

O: *Obabakoak*, Erein, Donostia, 1988 [gazt. itz.: Ediciones B, Barcelona, 1990].

P&H: *Poemas & híbridos*, Visor, Madrid, 1991<sup>2</sup> [1go arg.:1990].

BEEM: *Behi euskaldun baten memoriak*, Pamiela, Iruñea, 1991.

GBB: *Gizona bere bakardadean*, Pamiela, Iruñea, 1993 [gazt. itz.: *El hombre solo*, Ediciones B, Barcelona, 1994].

Ze: *Zeruak*, Milabidai-Erein, Donostia, 1994.

MPE: «Método para escribir», in AAVV, *Relatos urbanos*, Alfaguara, Madrid, 1994, 11-31.

ZH: *Zeru horiek*, Erein, Donostia, 1995.

Sarrionandiaren lanak:

IGB: *Izuen gordelekuetan barrena*, Bilbo Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1981.

LE: *Lur Eremua* [T.S. Elioten *The Waste Land*-en itzulpena], in G. Aresti, J. Sarrionandia & J. Juaristi (1983), 123-167.

N: *Narrazioak*, Elkar, Donostia, 1984<sup>3</sup> [1go arg.:1983].

NENH: *Ni ez naiz hemengoa*, Pamiela, Iruñea, 1985 [gazt. itz.: *No soy de aquí*, Hiru, Hondarribi, 1991].

AEE: *Atabala eta euria*, Elkar, Donostia, 1986.

MZ: *Marinel Zaharrak*, Elkar, Donostia, 1988<sup>2</sup> [1go arg.:1987].

M: *Marginalia*, Elkar, Donostia, 1989<sup>2</sup> [1go arg.: 1988].

EGGB: *Ez gara gure baitakoak*, Pamiela, Iruñea, 1989.

IAO: *Ifar aldeko orduak*, Elkar, Donostia, 1990.

GP: *Gartzelako poemak*, Susa, Iruñea, 1992.

HIHN: *Han izanik hona naiz*, Elkar, Donostia, 1993<sup>2</sup> [1go arg.:1992].

HINMY: *Hnuy illa nyha majah yahoo*, Elkar, Donostia, 1995.

### Bibliografia

Acosta Gómez, L.A. (1989): *El lector y la obra. Teoría de la recepción literaria*, Gredos, Madrid.

Adank, H. (1939): *Essai sur les fondements psychologiques et linguistiques de la métaphore affective*, Union, Ginebra.

Alba, M.J., 1993, "La metáfora pertinente", *Pragmalingüística* 1, 23-34.

Aldekoa, I. (1992): *Antzara eta ispiua*, Erein, Donostia.

———, (1993): *Zirkuluaren hutsmina*, Alberdania, Irun.

- Alonso, D. (1971<sup>5</sup>): *Poesía española. Ensayo de métodos y límites estilísticos*, Gredos, Madrid.
- Antezana, L.H. (1983): *Teorías de la lectura*, Altiplano, La Paz.
- Aresti, G., J. Sarrionandia & J. Juaristi (1983): *T.S. Eliot euskaraz*, Hordago, Donostia.
- Aristoteles (K.a. IV. m.): *Poética* [Valentín García Yebra itzulua], Gredos, Madrid, 1974.
- , (K.a. IV. m.): *Retórica* [Quintín Racionero itzulua], Biblioteca Clásica, 142, Gredos, Madrid, 1990.
- Artola, L. et al. (1980): *Euskara lantzen 2*, Erein, Donostia.
- Atxaga, B. (1983): "Epilogo, sasoi zaharrak gogoan", in J. Sarrionandia, *Narrazioak*, Elkar, Donostia, 1984<sup>3</sup>, 135-141.
- , (1986): "Poética", in "El estado de las poesías", *Cuadernos del Norte*-ren 3. ale monografikoa, Caja de Ahorros Asturiana, Oviedo, 148-153.
- , (1990): "Obabakoak-en gainean", *Enseiucarrear* 5, 11-30.
- Atxaga, B. et al. (1988): *Henry Bengoa, Inventarium*, Elkar, Donostia [gazt. itz.: *Poemas & híbridos*-en, Visor, Madrid, 1990].
- Barfield, O. (1962): "Poetic Diction and Legal Fiction", in M. Black (1962), 51-71.
- Beardsley, M.C. (1981): "The Metaphorical Twist", in M. Johnson (1981), 105-122.
- Bergmann, M. (1979): "Metaphor and formal semantic theory", *Poetics* 8, 213-230.
- Bickerton, D. (1969): "Prolegomena to a Linguistic Theory of Metaphor", *Found. of Lang.* 5-1, 34-52.
- Black, M., (arg.), (1962): *The Importance of Language*, Prentice-Hall, Englewood Cliffs, New Jersey.
- , (1966): "La metáfora", in M. Black (arg.), *Modelos y metáforas*, Tecnos, Madrid, 37-56.
- Bosch, P. (1985): "Context dependence and metaphor", in W. Paprotté & R. Dirven (arg.), *The Ubiquity of Metaphor: Metaphor in Language and Thought*, John Benjamins, Philadelphia/Amsterdam, 141-176.
- Brooke-Rose, C. (1970<sup>2</sup>): *A Grammar of Metaphor*, Secker & Warburg, London.
- Bruneau, Ch. (1951): "La stylistique", *Romance Philology* 5, 1-14.
- Cavafis, C.P. (1994<sup>2</sup>): *Poemas*, Seix Barral, Barcelona [R. Irigoyenen argitalpen eta itzulpena].
- Ciceron (K.a. I. m.): *El orador* [Antonio Tovar eta Aurelio R. Bujaldonek itzulua], Alma Mater, Barcelona, 1967.
- Clark, H. (1983): "Making sense of nonce sense", in Flores D'Arcais & R. Jarvella (arg.), *The Process of Understanding Language*, Wiley, New York, 297-332.
- Cohen, L.J. (1986<sup>5</sup>): "The Semantics of Metaphor", in A. Ortony (1986<sup>5</sup>), 64-77.
- Chomsky, N. (1971): *Aspectos de la teoría de la sintaxis*, Aguilar, Madrid.
- Dañobeitia, I. (1985): "Metafora eta konparazioa Bilintxen maitasun poemetan", *Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak* 4, 191-202.
- Davis, S. (arg.), (1991): *Pragmatics: a Reader*, O. U. P., New York.
- Du Marsais (1800): *Tratado de los tropos*, (2 liburuki), Aznar, Madrid.
- Eco, U. (1977<sup>2</sup>): *Tratado de semiótica general*, Lumen, Barcelona.
- , (1987): "El extraño caso de la «intencio lectoris»", *Revista de Occidente* 69, 5-28.
- , (1987<sup>2</sup>): *Lector in fabula. La cooperación interpretativa en el texto narrativo*, Lumen, Barcelona.
- , (1992a): *Obra abierta*, Planeta-Agostini, Barcelona.
- , (1992b): *Les limites de l'interpretation*, Grasset, Paris.
- Eichembaum, B. (1970): "La teoría del «método formal»", in T. Todorov (1970), 21-54.
- Elgoibarko Euskara Mintegia (1986): *Euskal Hizkuntza eta Literatura. BBB1-LH1-IEE1*, Elkar, Donostia.

- Eliot, T.S. (1922): *The Wast Land*. Ik. A. Swan (1982) zein J. Sarrionandia (1983); hots, *LE* laburduraren bidez jasorik dagoena laburduren atalean.
- Erich, V. (1974<sup>2</sup>): *El formalismo ruso. Historia-doctrina*, Seix Barral, Barcelona.
- Fish, S. E. (1970): "Literature in the Reader: affective Stylistics", *New Literary History* II, 123-162.
- Fontanier, P. (1977): *Les figures du discours*, Flammarion, Paris [1go arg.: 1818].
- Friedrich, H. (1974): *La estructura de la lírica moderna: de Baudelaire hasta nuestro días*, Seix Barral, Barcelona.
- Gabastou, A. (1993): "Solasean Asteasun", in Emak Bakia (arg.), *Hiru elkarrizketa Bernardo Atxagarekin*, 3-8, Pamiela, Iruña.
- Gabilondo, J. (1991): "Obabazkoak. Alegoria tipologiko baten irakurketa politikoa", in J.A. Lakarra (arg.) & I. Ruiz Arzalluz (lag.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1257-1281.
- , (1993): "Kanonaren sorrera egungo euskal literaturan: ETIOPIA-z", *Egan* 1993 (2), 33-65.
- , (1994): "Modernismoaren jarauntsia euskal literaturan. Obabakoak", *Egan* 2, 17-62.
- Gadamer, H. G. (1989): "Historia de efectos y aplicación", in R. Warning (1989), 81-88 [1go arg.: 1960].
- Gibbs, R. (1987): "What does it mean to say that a metaphor has been understood?", in R. E. Haskell (arg.), *Cognition and Symbolic Structures: The Psychology of Metaphoric Transformation*, N. J.: Ablex, Norwood.
- Glucksberg, S., P. Gildea & H. Bookin (1982): "On Understanding Nonliteral Speech: Can People Ignore Metaphors?", *Journal of Verbal Learning and Verbal Behaviour* 21, 85-98.
- Gnutzmann, R. (1991): "Teoría y práctica acerca del lector implícito", *Revista de Literatura* LIII, 105, 5-17.
- Grice, P.H. (1975): "Logic and Conversation", in P. Cole & J. Morgan (arg.), *Syntax and Semantics 3. Speech Acts*, 41-58, Academic Press, New York.
- Groupe U (1970): *Rhétorique générale*, Larousse, París.
- Guiraud, P. (1954): "Stylistiques", *Neophilologus* 38, 1-12.
- Gumpel, L. (1984): *Metaphor Reexamined: A Non-Aristotelian Perspective*, Indiana University Press, Bloomington.
- Harding, D.W. (1962): "Psychological Processes in the Reading of Fiction", *British Journal of Aesthetics* 2, 133-147.
- Hawkes, T. (1984): *Metaphor*, Methuen, London / New York.
- Hoyo, E., J. Latartegi & I. Zubizarreta (1992): "Izuen gordelekuetan barrena-ri hurbilketa semantikoa", *Enseiucarrean* 7, 81-115.
- Ingarden, R. (1989): "Concreción y reconstrucción", in R. Warning (1989), 35-53 [1go arg.: 1931].
- Inhoff, A.W., S.D. Lima & P.J. Carroll (1984): "Contextual effects on metaphor comprehension in reading", *Memory and Cognition* 12, 558-567.
- Iser, W. (1971): "Indeterminacy and the Reader's Response in Prose Fiction", in J. H. Miller (arg.), *Aspects of Narrative*, Columbia University Press, New York, 1-45.
- , (1983): *The Implied Reader*, John Hopkins University Press, Baltimore.
- , (1987a): *El acto de leer*, Taurus, Madrid.
- , (1987b): "El proceso de lectura: enfoque fenomenológico", in J.A. Mayoral (1987), 215-243.
- , (1989): "La estructura apelativa de los textos", in R. Warning (1989), 133-149 [1go arg.: 1975].
- Iturralde, J. (1983): "«Lur Eremua» itzulpenerako hitzaurrea", in G. Aresti, J. Sarrionandia & J. Juaristi (1983), 119-122.

- Jauss, H. R. (1976): *La literatura como provocación*, Península, Barcelona.
- , (1987): “El lector como instancia de una nueva historia de la literatura”, in J.A. Mayoral (1987), 59-87.
- Johnson, M. (arg.), (1981): *Philosophical Perspectives on Metaphor*, University of Minnesota Press, Minneapolis.
- Kittay, E. (1991): *Metaphor: Its Cognitive Force and Linguistic Structure*, O.U.P., New York.
- Kortazar, J. (1979): “Bernardo Atxagaren ETIOPIA”, *Jakin* 10, 123-127.
- , (1982): “Joseba Sarrionandiaren *Izuen gordelekuetan barrena*”, *Jakin* 23, 133-141.
- , (1989): *Laberintoaren oroimena*, Baroja, Donostia.
- , (1990): *Literatura Vasca. Siglo XX*, Etor, Donostia.
- , (1994): “El desierto, la selva y la ciudad”, *Bitarte* 2 (1994-XII), 61-73.
- Lakoff, G. & M. Johnson (1981): “Conceptual Metaphor in Everyday Language”, in M. Johnson (1981), 286-325.
- , (1991): *Metáforas de la vida cotidiana*, Cátedra, Madrid.
- Lanz, J.J. (1990/91): “Bernardo Atxaga o la literatura como ilustración”, *El Urogallo* 55-56.
- , (1993): “B. Atxaga: «Todo está roto y ése es su estado natural»”, *El Mundo* (1993-XII-23), 86-87.
- , (1994): “Bernardo Atxaga o el tiempo abolido”, *Bilbao* 28, 4.
- Lasagabaster, J.M. (1990): “De Arranondo a Obaba pasando por Madrid”, *Hegats* 2, 85-92.
- Lausberg, H. (1976): *Manual de retórica literaria. Fundamentos de una ciencia de la literatura*, Gredos, Madrid, 3 liburuki.
- Lázaro Carreter, F. (1990<sup>3</sup>): *Diccionario de términos filológicos*, Gredos, Madrid.
- Le Guern, M. (1990<sup>5</sup>): *La metáfora y la metonimia*, Cátedra, Madrid.
- Levin, S.R. (1977): *The Semantics of Metaphor*, Johns Hopkins University Press, Baltimore / London.
- Levinson, S.C. (1983): *Pragmatics*, C.U.P., Cambridge.
- Linea d'Ombra* (1993): “Euskaraz idazteari buruz”, in Emak Bakia (arg.), *Hiru elkarrizketa Bernardo Atxagarekin*, Pamiela, Iruña, 9-14.
- Markuleta, G. (1991): “Joseba Sarrionandia: Haizea eta Burdinaren dialektika”, *Zurgai* 1991-XII, 28-31.
- , (1994): “Zerupeko oro, lurreko”, *El Diario Vasco. Zabalik* (1994-XII-14), 64.
- Martin, J.L. (1973): *Crítica estilística*, Gredos, Madrid.
- Matthews, R.J. (1971): “Concerning a ‘Linguistic Theory’ of Metaphor”, *Found. of Lang.* 7-3, 413-425.
- Mayoral, J. A. (arg.), (1987): *Estética de la recepción*, Arco/Libros, Madrid.
- Melville, H. (1970): *Las encantadas*, Seix Barral, Barcelona [1go arg.: 1856].
- Mirande, J. (1987<sup>3</sup>): *Haur besoetakoa*, Erein, Donostia.
- Morales, A.I. (1992): “*Poemas & Híbridos*-en zehar eginiko gogoeta eroak”, *Enseiucarrean* 8, 105-152.
- Navarro Durán, R. (1995): *Comentar Textos Literarios*, Alhambra, Madrid.
- Olaziregi, M<sup>a</sup>.J. (1994): “Bernardo Atxagaren harrera literarioa: proposamen bat”, *ASJU* XXVIII-3, 683-706.
- Ortony, A. (1980): “Some Psycholinguistic Aspects of Metaphor”, in R.P. Honeck & R.R. Hoffman (arg.), *Cognition and Figurative Language*, Lawrence Erlbaum Associates, New Jersey, 69-83.
- , (arg.), (1986<sup>5</sup>): *Metaphor and Thought*, Cambridge University Press, New York.
- Ortony, A., R. Reynolds & J. Arter (1978): “Metaphor: Theoretical and empirical research”, *Psychological Bulletin* 85, 919-943.
- Otegi, K. (1993): *Lizardi, lectura semiótica de Biotz-begietan*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. [1991.ean Deustuko Unibertsitatean aurkeztutako tesi-lana].



- Pelc, J. (1961): "Semantic Functions as Applied to the Analysis of the Concept of Metaphor", *Poetics, Potyka* 1, 305-339.
- Pessoa, F. (1990<sup>3</sup>): *Obra poética*, (2 liburuki), Ediciones 29, Barcelona.
- Quintiliano (K.o. l. m.): *Instituciones oratorias*, Joaquín Gil, Buenos Aires, 1944.
- Riechmann, J. (1990): *Poesía practicable*, Hiperión, Madrid.
- Riffaterre, M. (1976): *Ensayos de estilística estructural*, Seix Barral, Barcelona.
- , (1989): "Criterios para el análisis del estilo", in R. Warning (1989), 89-109.
- Rodríguez, I. (1977): *La metáfora en la estructura poética de Jorge Guillén y Federico García Lorca*, Hispanova Ediciones, Madrid/Miami/New York/San Juan.
- Saalbach, M. (1995): "Literatura Alemana: Teoría de la Recepción" [lan argitaragabea], E.H.U.
- Sarrionandia, J. (itz.) (1985): *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*, Pamiela, Iruñea.
- Sarrionandia, J. et al. (1983): "*Intxaur azal baten barruan*" eta "*Eguberri amarauna*", A.A.G., Gráficas Lizarra, Lizarra.
- Schwartz, L. (1986): *Metáfora y sátira en la obra de Quevedo*, Taurus, Madrid.
- Searle, J. (1991): "Metaphor", in S. Davis (1991), 519-539 [1go arg.: 1979].
- Shklovski, V. (1970): "El arte como artificio", in T. Todorov (1970), 55-70 [1go arg.: 1917].
- Spang, K. (1984<sup>2</sup>): *Fundamentos de retórica*, Eunsa, Iruñea.
- Sperber, D. & D. Wilson (1986): *Relevance: Communication and Cognition*, Blackwell, Oxford.
- , (1991): "Loose Talk", in S. Davis (1991), 540-549.
- Spitzer, L. (1968<sup>2</sup>): *Lingüística e historia literaria*, Gredos, Madrid.
- , (1980): *Estilo y estructura en la literatura española*, Crítica, Barcelona.
- Stroik, T.S. (1988): *The Pragmatics of Metaphor*, Indiana University Linguistics Club, Indiana University, Bloomington, Indiana.
- Swan, A. (1982): *La tierra baldía (T.S. Eliot): un epitafio para Occidente*, Ed. Swan, Madrid.
- Thompson, S. (1955<sup>2</sup>): *Motif-Index of Folk-Literature*, (6 liburuki), Indiana University Press, Bloomington [1go arg.: 1932].
- Todorov, T. (arg.) (1970): *Teoría de la literatura de los formalistas rusos*, Signos, Buenos Aires.
- Van Dijk, T.A. (1975): "Formal semantics of metaphorical discourse", *Poetics* 4, 173-198.
- Vicente, B. (1993): "En torno a la semántica y la pragmática de la metáfora: una revisión crítica", *Pragmalingüística* 1, 307-334.
- , (1995): *Mecanismos Semántico-Pragmáticos en el Análisis de la Metáfora*, E.H.U.ren Argitarapen Zerbitzua, Leioa. [1991.ean Gasteizko Filologia eta Geografi-Historia Fakultatean aurkeztutako tesi-lana].
- Viqueira, M.A. (1990<sup>3</sup>): "Introducción a Fernando Pessoa", in *F. Pessoa. Obra poética*, Ediciones 29, Barcelona, 27-47.
- Vodicka, F. (1989): "La concreción de la obra literaria", in R. Warning (1989), 63-80.
- Warning, R. (arg.), (1989): *Estética de la recepción*, Visor, Madrid [1go arg.: 1975].
- Weinrich, H. (1971): "Para una historia literaria del lector", in H. U. Gumbrecht & G. Domínguez (arg.), *La actual ciencia literaria alemana: seis estudios sobre el texto y su ambiente*, Anaya, Salamanca, 115-134.
- Wheelwright, P. (1960): "Semantics and Ontology", in L. C. Knights (arg.), *Metaphor and Symbol*, Colston Research Society, London, 1-9.
- White, T. H. (1982): *La leyenda del rey Arturo*, (4 liburuki), Ed. Debate, Madrid. [1go arg.: 1939].
- Wilson, W. D. (1981): "Readers in Texts", *PMLA* 96 (5), 848-863.
- Zimmermann, B. (1987): "El lector como productor: en torno a la problemática del método de la Estética de la recepción", in J. A. Mayoral (1987), 39-58.